

MAXIYATZEN

GUKA

IÑIGO ARANBARRI

**ELEA
ZORROTZ**


INNOVA
AZPEITIA
HORTZ KLINIKA



BEHAR DUZUN HORI
EMAITZA ONENAREKIN

Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



AZKOITIA - ALTZIBAR ETORBIDEA



3 logela · 2 bainugela · 70m²
Eraberritutako etxebizitza
Altzibar Etorbidean

Salgai
200.000€



AZKOITIA - BIZKARGO KALEA



2 logela · 1 bainugela · 65m²
Bizkargi Kalean kokatzen den
etxebizitza

Salgai
140.000€



MAXIXATZEN 435

2023- URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Korapiloa Iraia Oteiza, <i>Ez dut nahi.</i> | 32 | Iritzia Jose Ramon Aranbarri, <i>Andramaixek.</i> |
| 6 | Hitz bitan Mohammed Ouahzizi, <i>Azkoitian bizi den marokoa.</i> | 34 | Erretratua Nagore Silvan, <i>eskubaloien entrenatzailea.</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Aitor Goenaga, <i>Erresilientzia.</i> | 38 | Plazan Bazan. |
| 10 | Iritziak Juan Ramon Alberdi, <i>Euli minez; Imanol Elezgarai, Itoko gara.</i> | 40 | Akordatzeko? <i>Euskara eta debekua, biak bat zirenekoa.</i> |
| 12 | Elkarriketa Iñigo Aranbarri, <i>idazlea.</i> | 44 | Iritzia Irene Elortza, <i>#aldamioeguna.</i> |
| 18 | Zakelmari. | 46 | Euskara Ixabel Jauregi, <i>Euskalgintzaren gizarte kapitala. Bertsoa paperean.</i> |
| 20 | Elkarriketa Nerea Bilbao, <i>margolaria.</i> | | |
| 24 | Guka Adimen artifiziala, <i>arisku baino aukera gehiago.</i> | | |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua
Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Iraia Oteiza
Ihaintza Elustondo
Ane Olaizola
Disenatu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu

Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Arnaitz Rubio Aprea
Aitor Goenaga
Juan Ramon Alberdi
Imanol Elezgarai

Jose Ramon Aranbarri
Naia Arrizabalaga
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi
Irene Elortza
Ixabel Jauregi
Jokin Sodupe

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale



Babesleak:



EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-00 34 47 • AZKOITIA
Urbaitze 9 bis • 943-15 00 23 • AZPEITIA

Web proiektuak
Software Ingeniaritza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB sport

(biondi) 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia 87 • 943-85 20 98
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



**JARRI HEMEN ZURE
IRAGARKIA**



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA
TABERNA**



Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31



ATRASKUA
943-85 31 70

ARTISANU PIZKAN
ENTSALADAK
PINTXOKI
PLATER KONEKINATIAK
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMBU ETA ARDO ESKANTZA
PAPERUAK
GARJUNGATETAN 06:00 ARTE IRENTIA

LATZ
TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

zurt

OGITARTEKOAK • SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTSALADAK • RAZIOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA

TERRAZA HANDIA
ZUZENEKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com

**ZERBER
BURDINDEGIA**

BEHAR DUZINERAKO ALOR GUZTETAKO GAIK AURKUTU
DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA,
MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA
ETA ABARREKO TREKNERIA: HALA NOLA, TORLOJUA,
ERRORDAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA • 938 36 31 05
www.ferriteriazerber.com



Ez dut nahi



IRAIA OTEIZA

Beldurtuta nago. Beldurtuta eta kezkatuta. Robot batek zerbitzatu berri dit afaria jatetxe batean. Arraroa izan da, eta hotza. Konturatuko zineten honezkero, baina lanpostu asko eta asko makinengatik ordezkatu dituzte, izan zerbitzariak, banatzaileak, supermerkatuetako kutzazainak zein gasolindegietako langileak. Makinak gu baino hobeak izango dira, ziur. Ikusi bestela nork jarri duen Messi lehenengoz ingelesez hizketan; edo zenbat langilek egiten duten lan algoritmoen aginduetara. Pentsa, idazten ari naizen testu hau ere adimen artifizialaren esku utz nezakeen.

Zenbat aldatu diren gauzak denbora gutxian. Bat-batean, laurogeiko hamarkadako zientzia fikziozko film batean murgildu garela dirudi, eszena surrealista haiek egiaz bizitzera iritsi garelako. Eta, noski, orduko beldur eta kezka berberak itzuli zaizkigu: robot batek kontrolatuko ote gaitu etorkizunean?

Filosofia klasean entzun nuen lehen aldiz antropozentrismo hitza. Gizakia unibertsoan dagoen gauzarik garrantzitsuena dela dioen pentsamendua dela ikasi nuen orduan, hau da, ikuspegi horren arabera, ezer ez dagoela gizakiaren gainetik. Bada esango didazue non geratu den antropozentrismoa orain.

Adimen artifizialak eman digun ostikoak zenbait gogoeta egitera eraman nau. Alde batetik, ikara sortzen dit gizakiak hartu beharreko erabakiak beste norbaitek edo zerbaitek hartzen dituela jakiteak. Ez dakit, manipulagarriagoak garela iruditzen zait, gizaki eskasagoak.

Bestetik, informazio pertsonala dago. Badakigu adimen artifizialak gure miserien inguruko informazioa erraz lor dezakeela, baina noraino irits litezke datu horiek? Nire kontuen inguruan kontrol hori ez izateak urduri jartzen nau. Baina, bada are gehiago kezkatzen nauen hirugarren kontu bat ere: emozioena. Lan egiteari eta pentsatzeari uko egin ostean, sentitzeari ere utzi egingo al diogu? Ziur naiz nonbaiten sortzeaz dagoela gure ordeztentzeko gai den makina ere, emozio artifiziala deiturikoa edo. Hori horrela, jada ez genuke ezer egin beharrik izango. A zer pagotxa!

Bada, argi esango dizuet: egoerak ez dit batere graziaz egiten. Ez dut nahi makina batek nire kazetaritza lana ordezkatzetik, ez eta jatetxe batera joan eta nire otordua robot batek ekartzetik ere. Supermerkatuara joatean erosketak pertsona batek kobratzen jarraitzea nahiko nuke, eta bidaiatzen dudanean ere moldatuko naiz euskara ez den beste hizkuntzaren batean komunikatzen, nire ordeztentz egingo duen inolako algoritmorik gabe. Ez dut nahi nire ordeztentz inork pentsatzetik; are gutxiago, nire ordeztentz sentitzetik. Ez dut nahi guztiz alferitu eta, ezer egitekorik gabe aspertuta, gizakia kontzeptu gisa desagertzetik. Ez dut nahi. ■■■

**EZ DUT NAHI NIRE
ORDEZ INORK
PENTSATZERIK; ARE
GUTXIAGO, NIRE ORDEZ
SENTITZERIK**

Mohammed Ouahzizi: "Estres handia aurkitu dut hemen"

TESTUA ETA ARGAZKIA: IRAIA OTEIZA

Mohammed Ouahzizi (Merzouga, Maroko, 1984) duela bost urte iritsi zen Merzouga herritik eskualdera. Hasieran, bi urtez egon zen Azpeitian bizitzen, eta ondoren etorri zen Azkoitira, bikotekidearekin. Marokokoaren aldean, hemengo bizimodua "oso ezberdina" dela adierazi du.

Zerk ekarri zintuen Azkoitira?

Duela hiru urte etorri nintzen Azkoitira bizitzera, bikotekidearekin. Aurretik, beste bi urtez egon nintzen Azpeitian bizitzen, bikotekidea hangoa baita. Merzougan ezagutu genuen elkar, komunean dugun lagun bati esker, eta denbora batez joan-etorrian ibili ostean, bizitzera hona etortzeko erabakia hartu nuen, bikotekidearekin egoteko. Distantzian harreman bat mantentzea ez da erraza.

Maroko eta Azkoitia zeharo desberdinak izango dira.

Asko kosta al zitzaizun hemengo bizimodura egokitzea?

Marokon turismo sektorean egiten nuen lan eta, ondorioz, hizkuntza asko menperatzen ditut. Azkoitira etorri aurretik ere banekien gaztelaniaz hitz egiten, eta horrek asko lagundu dit herrian integratzerako garaian. Familiaren babesa ere hasieratik sentitu dut, eta lagunak ere egin ditut. Egia da, ordea, bizimodua zeharo desberdina dela hemen. Kultura, klima, paisaia, egunerokotasuna... dena aldatzen da.

Nolakoa da Merzougako bizimodua?

Merzouga herri txiki bat da, ia Aljeriako mugan dagoena, basamortuaren atarian. 3.000-4.000 biztanle inguru ditu eta herritarrak berbere tribu nomadaren ondorengoak dira. Leku oso lehorra denez, duna inguruan lur azpian dagoen uraren arabera mugitu izan da tribu urte askoan. Egun, egoera oso bestelakoa da, mugen kontua dela-eta jada ez dagoelako alde batetik bestera mugitzeko lehen adinako askatasunik. Ondorioz, Merzouga herrian kontzentratu dira nomada horiek guztiak. Nire anaia zaharrenak, esaterako, basamortuan jaio ziren, nomada bizimoduan. Aldiz, hiru anaia

gazteenak herrian jaiotakoak gara. Etxe batzuk, abereak, ur putzuak eta ezer gutxi gehiago dago Merzougan. Lasaitasuna da nagusi.

Ba al dute antzekotasunik berbere tribuko nomadek euskaldunekin?

Ez askorik, baina Euskal Herrian euskalkiak dauden moduan, han ere dialekto ezberdinak ditugu, eta bakoitzak bere berezitasuna du. Hortxe legoke bien arteko antzekotasuna.

Azkoitira iritsi zinenean, zer izan zen gehien harritu zintuena?

Bereziki paisaiak harritu ninduen, asko aldatzen da. Merzouga oso lehorra da, dunaz betea, hori kolorekoa. Urrutira begira jarri eta galdu egin zintezke, begien irismentetik haratago baitoa paisaia. Azkoitian dena gertu dago, ezin da urrutira begiratu, guztia karratua da eta tartean mendiak daude. Kolorea ere berdea da. Eguraldia ere zeharo desberdina da, eta askotan, eguzkiaren falta sumatzen dut.

Zer da inguruotatik gehien atsegin duzuna? Eta, aitzitik, aldatuko zenukeena?

Familiaz gain, hemengo sistema da gehien gustatzen zaidana eta, aldi berean, aldatuko nukeena. Min hartuz gero, berehala medikuarengana joateko aukera dago. Horrez gain, nire seme-alabek ere heziketa ona jasoko dute. Hori atsegin dut.

Baina, gauza oso onak dituen arren, oso lotua da. Estres handia aurkitu dut hemen. Inork ez du bere buruarekin egoteko denborarik, egunero sistemaren menpe bizi gara. Lehen, aske bizi nintzen, eta orain, sistemaren esklabo naizenaren sentipena dut.

Atzeritik etorri den pertsona bat ongi etorria al da Azkoitian?

Hizkuntza ezagutzea dago oinarrian; integratzeko orduan horrek balio du. Hemen euskaraz ulertu beharra dago komunikatzeko, nahiz eta oraindik askok ez dakiten hitz egiten. Euskaraz ez bada, gaztelaniaz jakin behar da. Komunikatzeko gaitasun hori izanez gero, erraza da maitatua sentitzea. ■■■



Erresilientzia

ARGAZKIA ETA TESTUA: **AITOR GOENAGA**

Dantzatzen duen basoa ez da inoiz hilko. ■■■





Euli minez

Sarritan pentsatu izan dut negua eta udaren artean dagoen alde handietako bat euliak egon edo ez egotean datzala. Alabaina, azken bizpahiru urteetan euliak urritu egin dira. Aurtengo udan geure etxean euli urritasuna nabaritzeaz gain, jende gehiagori ere entzun diot euliak bakandu izanaren kontua. Ez dut esango faltan botatzen ditudanik, gogaikarri samarrak direlako, baina euren zeregina izango dute biodibertsitatearen katean. Eta gutxitzen diren heinean, funtzio batzuk behar bezala bete gabe egongo dira naturan (horien artean, ziur aski, guri adarra jotzea). Aldiz, beste euli mota batzuk ugaritzen ari dira. Batak porruari erasotzen dio; besteak, intxaur aleari.

Porruarena ez dakit noiz eta nondik etorri den, baina hain estimatua dugun jakian arrautzak jartzen ditu eta horietatik sortutako harrek hostoetan kalteak eragiten dituzte. Hori ekiditeko sare oso estua jartzea gomendatzen dute, eta lanak lan, intsektua saihestea lortuz gero, gaitz erdi. Intxaurrena, oster, Amerika kontinentetik iritsi eiz da. Euli horrek intxaur alea babesten duen oskol orlegian jartzen ditu arrautzak, eta harrak jaiotzean oskolaren mamia jaten dute, azala bere horretan aleari itsatsita utziz. Horrela ikusten ditugu zuhaitz berdean kontrastea egiten duten ikatz koloreko biribiltxoak, eta behialako intxaur uzta zoragarri eta gozoak iragan bilakatu zaizkigu. Gainera, euli

horrentzat oraingoz ez dago tratamendu edo trikimailurik.

Ez dakit zerikusirik duen gure euli "autoktonoaren" galeran eta kanpotik etorritako horien geraldian, azkenaldian ahoz aho darabilkigun klima aldaketak. Bero itogarriek eta ekaitz bortitzek kezka nabarmena sortarazi digute, baina intsektuen joera ezberdin horiek ere giroa mudatzearen seinale izan daitezke. Klima aldaketa baretzeko edo eraldatzeko, gizakion jokaera sanjatzeari ezinbestekoa bilakatu zaigun garaiotan, zer egiten dugu? Beira, plastikoa, papera, organikoa, olio, pilak... eta horietan kokatzen ez diren errefusak birziklatze bidean jartzen ditugu. Eta nolabait, zama horietaz askatu ordurako kontzientzia karga ere arindu

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Itoko gara

Egun, kanpotar kuriosorik etorriko balitzaigu Azkoitira euskararen inguruan galdezka, bularra puzturik kontatuko genioke gure izaeraren oinarri dela. Herri hau euskararen arnasmune dela eta euskaraz zoriontsu bizi garela denok anai artean, Disneyko film baten amaieran bageunde bezala. Ondoren, baina, mutiko kuadrilla bat pasatuko litzaiguke albotik, espainol dotorean nork daki zein youtuberren azken bideoa edota Kings Leagueko jokaldirik onenak komentatzen. Eta errealitateak astelehen goizeko iratzargailuak baino gogorrago kolpatuko gintuzke.

Identitatea izateari utzi dio, beste hizkuntzek, antza, mundura zabaltzeko ematen duten aukeraren prezioan. Gure buruaz dugun irudiak gure hitzak mututzen ditu, eta ez gara zein hizkuntzatan mintzo diren entzuteko gai. Gazteen egungo mintzaera argazki bat da, ekografia baten antzera, etorriko denaren irudia erakusten diguna. Izaera definitzen duen elementu izaera berreskuratu beharra dago. Ikastetxeetan, komunitateak sortutako egitasmoetan, kulturatik, mundura zabaltzeko eta ezagutzeko begirada euskalduna errekuiperatzeko; edo itoko gara. ■

egiten zaigu. Izan ere, zer gehiago egin dezakegu? Bada, besteak beste, formula moduko bat jarri digute: 0 km.

Ez dakit baina, 0 horren esanahia oso ongi ulertu dugun. Ikusi besterik ez dago herriko berdura plazan eta komertzio txikietan 0 horretatik gero eta gertuago dagoen bezero kopurua. Edo, oporrak kasu, bidaiak egiterakoan 0ak (eskuinean) bikoiztu eta, ahal bada, hirukoizteko daukagun joera nabarmena. Zerueta hegazkinen argiz eta kez betetzeaz gain, turismoak eskaintzen dituen onurez baliatzen saiatzen gara: mundu guztiko bazter eta txokoak miatu, jende berria ezagutu, kultura ezberdinak kontrastatu, janariaren zapore eta usainak dastatu... Ez dut esango ezagutza eta

esperientzia horiek pertsonaren izaera areagotzeko baliagarriak ez direnik. Baina gehienetan bidaia luze horien helmugan, batez ere hamaka baten zama eta mugikorraren euskarri bilakatzen gara, bazter exotiko horiek gordetzen dituzten benetako harribitxiengandik urrun kokatuz.

Geure herrira itzultakoan, benetako 0 km den eremuan, gero eta aukera gehiago daukagu jende berria ezagutzeko, kultura aniztasunaz gozatzeko, janaria prestatzeko modu berriak eta bitxiak dastatzeko... Baina guk ez diegu kasu zipitzik egiten. Bada, zer esango dizuet: etxeko euliak desagertzen ari diren garaiotan, gai horiekin moskeatzen hasteko garaia iritsi zaigula uste dut. ■



"Ez dut hastapeneko kemenena, orduko beharrik ere sentitzen ez dudalako"

ÍÑIGO ARANBARRI IDAZLEA

Hitzen unibertsoan zaildua, Iñigo Aranbarri idazleak dozenaka gai mamitu ditu azken hamarkadetan beste horrenbeste poesia, saiakera eta fikziozko lanen bitartez. Begirada nahiz hizkuntza zorrotz, ez da testu kamutsik haren literaturan, eta aitortu du: "Kritikoa naiz, besteekiko zein neure buruarekiko".

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Poesiaren eta prosaren bidez literaturan iltzatuta, hizkuntza eta iragana jasotzea zein zabaltzea langai izan ditu maiz Iñigo Aranbarri idazleak (Azkoitia, 1963). Labealdi berekoak dira Juan Luis Zabala edota Pako Aristi idazleak, eta haren sormenean sustraiturik daude bailarako gertakariak zein bere belaunaldiaren eta aurrekoen memoria. Ez da kasualitatea.

Azken urteetan ez zara Azkoitian bizi, baina Kale Nagusian dagoen betiko saltoki bateko semea zara. Nola oroitzen dituzu haurtzaroko eta gaztaroko kaleak, herria?

Haurtzaroa zein gaztaroa oso garrantzitsuak dira, batez ere identitatea sendotzerakoan, eta edozein lekutan bizi zaitezkeela ohartzen zaren unea iristen da gero. Baina garrantzitsua da oinarria eta bueltatzeko leku bat edukitzea. Hori ezinbestekoa da.

Niretzat oso garrantzitsua izan zen Azpeitiko institutua. Aurrez, Floreaga ikastetxean ikasi genuen, gazteleraz. Euskaraz hitz egitea ere gaizki ikusita zegoen garai hartan; zigortu ere egiten gintuzten. Hango ikasketak amaituta, Azpeitiko institutura joan nintzen, eta urte hartan euskara

hautazko ikasgaia jarri zuten. Zortea izan genuen, Iñaki Azkune azpeitiarra izan genuelako irakasle. Gramatika oso gutxi lantzen genuen, eta irakasleak etxean zuen liburutegia eramaten zuen eskolara. Mahai gainean uzten zituen liburuak, eta "hartu nahi duzue" esaten zigun. Irakurtzen igarotzen genuen ordua. Deskubrimendu bat izan zen guretzat. Izan ere, euskaldunak ginen, baina analfabetoak; neurri batean, literaturaren bidez alfabetatu ginen. Buruan eta ahoan genuen herriko euskara moldatu, eta batura eramaten ikasi genuen. Aldi berean, euskal literatura ezagutu genuen.

Literaturan ontzen hasteko akuilua izan al zen hura?

Bai, dudarik gabe. Garrantzitsua da adin bat duzunean erreferenteak edukitzea. Guk, garai hartan, 14 eta 16 urte artean izango genituen, eta luxua izan zen Iñaki Azkunerekin topo egitea. Hari esker, ikasgela hartatik Juan Luis Zabala, Pako Aristi... idazleak atera ginen, eta beste hainbat ere ibili izan ziren gerora literaturan eta antzerkian.

Ikasleok, berez, bagenuen idazteko gogoa, baina ez bagenu Iñakirekin topo egin, ez dakit zenbateraino izango ginatekeen idazle. Haren



bidez hasi ginen idazten, argitaletxeak ezagutzen eta haiekin harremanetan jartzen, lanak bidaltzen...

Poesiarekin ekin zenien argitalpenei. 1986an kaleratu zenuen aurreneko liburua: *Jonas Poisson*.

Hura izan al zen ondoren landuko zenuen literatura motaren zutoina?

Oso esperimentalak izan zen liburu hura, eta uste dut garai hartan hala bizi genuela literatura bera; desberdin ikusten zen. Ez genion erreparatzen liburuaren salmentari, eta ez genuen kontuan hartzen jendea gustatuko al zitzaion eta hark ulertuko al zuen. Barrenetik ateratzen zitzaiguna kontatzen genuen. Esperimentaziorako eta gauza ausartagoak egiteko joera handiagoa zegoen.

Ausardia galdu al du literaturak?

Iruditzen zait literatura kontserbadoreagoa egiten dela. Izan behar du denek ulertzeko modukoa, eta irakurleari ezin zaio denbora eta espazioa aldatzeko lanik eman. Baina halako gauzak beti egin izan dira literaturan, eta gu gazteak ginenean ere halako abangoardista asko zegoen. Beste garai batzuk ziren, eta literatura ausartagoa egiten zen.

Ordura arteko literaturaren aldean, zure belaunaldia berritzailea izan al zen?

Sarrionandiak, Atxagak, Izagirrek... egiten zutena eta Ustela sailean argitaratzen zena asko irakurtzen genuen, eta ohartzen ginen hori guztia egundoko ausardia zela. Neurri batean, literaturaren autonomian sinesten genuen. Literaturak izan behar du genero autonomo bat, eta horren ondorengoak gara gu. Gero, bakoitza bere estilora joaten da moldatzen, eta norberak hartu beharko dio neurria, esaterako, testua erradikalegia al den edo ez erabakitzeari.

Non kokatzen duzu zure literatura?

Batzuetan oso muturrean ibili naizela uste dut. Denborarekin pixka bat zorroztu dut, baina gustatzen zait neure bidea segitzea, eta ez horrenbeste jendeak ulertuko duen erara idaztea. Idazleak badu bere testuarekin konpromiso eta borroka bat: bere estiloari zer neurritaraino eutsi eta utzi behar dion batetik, eta bere buruarekin zer neurritaraino izan behar duen zintzoa, bestetik. Idazleok kinka horretan gabilta beti. Liburu bakoitzarekin sortzen den borroka da hori, eta erabakiak momentuan hartzen dira.

"IRUDITZEN ZAIT GAUR EGUN LITERATURA KONTSERBADOREAGOA EGITEN DELA"

"GERTAERA HISTORIKOEN ERDIAN EGON GARA MAIZ. APROBETXATZEKO MUNDU BAT IKUSI DUT"

"USTE DUT BADUDALA ZER KONTATUA, BAINA EZ DUT HASTEKO BESTE INDARRIK BATZEN"

Zure liburuetan, askotan egin duzu denboran atzera: *Emon biar yako, Gerraurreko literatur kritika, Gure mendea...* Zer leku du iraganak zure narratiban?

Iraganak baino, memoriak. Beharbada, lotuegi dago horretara, eta izan beharko nuke ausartagoa eta etorkizunera begiratu, baina uste dut bizi izan dugun garaiaetatik edo, memoriak pisu handia duela; ez soilik norberaren esperientziak, aurrekoarenak ere bai. Esparru horretan gustura sentitzen naiz eta sentitu izan naiz. Bada, neurri batean, kontrola dezakedan mundu bat.

Bailarako istorioak ere jaso dituzu hainbatetan.

Pribilegio handia dugu bailara honetan, Azkoitia eta Azpeitia inguruan. Pribilegioa dugu, ez soilik gaur egunera arte hizkuntza oso ondo mantendu delako eta euskara batura ekarpena egiteko moduko lexiko eta esamoldeak ditugulako. Hortik harago, euskal literaturari dagokionez,



gertaera historikoen erdi-erdian egon gara kasu askotan. Aprobetxatzeko mundu bat ikusi dut hor.

Zure belaunaldikoek bizi izan zenuten bailarako giroa jaso zenuen, esaterako, *Munduko tokirik ederrena* liburuan. Zein zen inguru horri lotuta garai hartaz egin zenuen argazkia, eta handik zer eraman zenuen eleberrira?

Azken batean, *Munduko tokirik ederrena* izenburua ironikoa da. Senide batek esaten zuen pena zuela hiltzeko, baina ez bera hiltzeagatik, baizik eta herria uzteagatik. Eta askori entzuten zaio: "Hemen baino hobeto, non?". Baina beste lekuetan bizi direnek ere gauza bera esango dute. Bada, hemen baino hobeto, leku askotan bizi daiteke. Begira hasiz gero, miseria asko dago hemen ere. Orduan, liburuan nahi nuen halako atzera begira bat egin, gure belaunaldiarentzat eta aurrekoarentzat zer izan zen hemen bizitzea

azaltzea. Horrela sortu ziren liburuko hamar istorioak, asko anekdota pertsonaletik edo etxean bizi izandakotik. Anekdotatik abiatu, fikziora salto egin, eta estiloarekin asmatuz gero, ohartu nintzen bazegoela kontatzeko moduko mundu bat. Uste dut asmatu nuela. Oso-oso pozik nago lanarekin.

***Apirila* eleberria ere herrian kokatu zenuen.**

Oraintxe hamar bat urte idatzi nuen. Orduan, honakoa zen giroa: egundoko psikosia zegoen ekonomian, Europa hegoaldeko herrialdeetan zor publikoa zela eta. Greziatik zetozen albisteak ikaragarriak ziren: jubilatutak suizidatzen, manifestazioak egunero Sintagma plazan, jendea dena galtzen ari zen. Grezieraz ere ikasi genuen: "Oxi!". Hau da: "Ez! Ez gara makurtuko Munduko Diru Funtsak eta Europako Banku Zentralak ezarritako neurri itogarrien aurrean". Hor bazen giza drama bat, literaturara ekartzea merezi zuena. Noski, ez zen gertatzen zen lehen aldia. Egoera ekonomikoki nahasietan, beti gertatzen da gauza bera. Behekoak beherago doazen neurrian doaz gorago lehendik goian daudenak. Susmopetik kanpo dagoen Intermon Oxfam bezalako GKEak salatzen ari direna. Hala gertatu zen inguru hauetan ez ezik Europa guztian XVIII. mendearen bigarren erdialdean ere. Eta hala lotu nituen bi istorioak: gaur egungo langile batena eta Azkoitiko 1766ko matxinada.

Eta, ondoren, *Txanton Garrote* agertokitik jaitsi zen *eguna* saiakera argitaratu zenuen.

Banuen material bat, inoiz argitaratu gabea: Azkoiti-Azpeitiko matxinadako epaiketako aktak, Gipuzkoako Artxibo Probintzian esku artean izan nituenak. Merezi zuen ezagutaraztea. Hasieran, blog batean joan nintzen argitaratzen. Gero, liburu gisa forma eman nien. Matxinadako egunetan gertatutako bere testuinguruan kokatu nahi nuen: botere harremanak eta klasismoa, berriz ere. Normala da, bakoitzak bere interesak ditu. Jendea gose zen, eta errepresioan matxinadako buruontzat heriotza zigorra eskatzen zuten handiki berak bihurtu ditugu orduko kulturaren erreferente. Ematen du zer pentsatua. **Saiakeran, hizkuntza bera ere izan duzu langai. Esaterako, 2004-2006 urteetan, *Berria* egunkarian idatzitako artikuluen antologia sortu zenuen: *Hizlandia*. Kazetaritzaren herrenak seinatu zenituen. Nola ikusten duzu tokiko kazetaritza?**

Orokorrean, lehengo bidetik goazela iruditzen zait. Alde batetik, herri aldizkariak ekarpen handia

egin dute, lortu dutelako euskaraz irakurtzera ohitu gabe zeudenak horretara ohitzea. Ordea, herri aldizkarietan txokokeriarako joera dago, eta hori ez zait batere gustatzen. Esaterako, ez dago esan beharrik norbait idazle azkoitiarra dela. Iruditzen zait batzuetan gure saltsan egostea gustatzen zaigula. Garrantzitsua al da idazlea nongoa den jartzea? Aurreko garaiaz hitz egiten egon gara, eta orduan bazegoen asmoa euskalduna izateko, bakoitza zen lekukoa izanda. Baina sentipena daukat, azken urteetan txokokeriarako gorespina nagusitzen ari dela, erabilera fonetikoaren eraginez nahiz toki desegokietan. Albokoa ez ikusi, eta gure txokoan egosten garela iruditzen zait, eta hor badago zer konpondua.

Hizlandian zorrotza zinen hizkuntzarekiko. Kutsatuta al dago euskara?

Kutsatu, hizkuntza guztiak kutsatzen dira, "zikindu" egiten dira erabiltzen diren neurrian, eta hala behar du. Baina geuretik aberastu beharrean erdararen kalkoz sortutako euskara badarabilgu, erdaraz ari bagara euskaraz ari garelakoan... Gaur egun, gaztelera jakin behar da euskara ulertzeko. Adibide mordoa dago: "Bortxaketa bat eman da jaietan". *Eman da* ez duzu ulertzen gaztelerez ez badakizu.

Zure lanen berezitasunetako bat da hizkuntza oso jasoa dutela.

Simple esanda, noranahiko hizkuntza bat nahi dut lanerako, aberastua hala komeni bada, baina komunikatiboa bezain ederra izan nahi duena. Dena den, literaturan hizkuntzarena atal bat da, baina ez bakarra. Hor dago estiloa ere, alegia, hizkuntza nola darabilgun kontatu nahi duguna kontatzeko. Lehengaia eta sukaldaritza bezala.

Saiatzen al zara bailarako edo herriko hitzek zure literaturan lekua izan dezaten?

Bai, baina ez nire bailarakoak edo herrikoak direlako, esan nahi dudan hori esateko balio didatelako baizik. Nik behar dut idazten dudan hori neure barruan entzun, erritmoa izan dezan, sinesgarri gerta dakidan, neure egiteko. Eta hitzak behar ditut gauzak zehatz eta eder esateko, lokuzioak behar ditut adierazkortasuna lortzeko, eta ezin uka, zorte handia dugu hizkera bizi batekin hazi izan garelako. Baina geure burua engainatuko genuke bakarrak garela uste badugu. Nik behintzat behar ditut beste euskarak ere, neurea adina.

Idazlea ez ezik, euskara irakaslea zara Donostiako Hizkuntza Eskolan. Zein da euskara irakasle batek garai hauetan duen erronkarik nagusia?

Ahal den neurrian, tituluaren obsesiotik urrundu eta ikasleak euskararen mundura ekartzea: irakur dezatela euskaraz, ikus dezatela zinema, entzun dezatela musika, amorra daitezela euskaraz, poz daitezela... atera daitezela euren eremutik eta aurki dezatela kanpoan dagoen hori. Ikus dezatela komunitate bizi eta moderno bat garela. Ez da erraza. Nola piztuko diet Santutxuko zinemagile batenganako jakin-mina, munduko tokirik ederrenean bizi direla sinestarazi badiegu? Nola, probintzialismoak itotzen bagaitu? Nola deskubrituko dute Iparraldea mugaz bestaldeari Frantzia deitzen bazaio egunero gehien saltzen den egunkarian?

Zutabegilea ere bazara Berria egunkarian. Gaitegi aldetik idatzi politikoak egiten dituzu, eta posizionatu ere egiten zara.

Politikoa baldin bada gogoeta egitea jendarte moduan nola bizi garen, gure zimurretan erreparatzea, bai, zutabe politikoak dira. Baina politikotzat ulertzen bada alderdi baten edo bestearen alde jartzea, ez dira batere politikoak. Ez zait batere interesatzen ikuspegi hori. Aukera handiegia da igandero eskaintzen didatena alferrik galtzeko.

Hautu hori bat al dator zure literaturarekin?

Erabat. Eta esango nuke asteroko zutabeek lagundu ere egiten didatela estilo bat mamitzen. Entrenamendu ona da.

Zer osasun du euskarazko literaturak?

Beste mediku bat beharko genuke diagnosi hobea egin diezagun, baina irakurle moduan ez dut kexatzeko arrazoirik. Liburu eder asko ateratzen da urtean, izan jatorrizkoak edo itzulpenak. Idazle interesgarri berri asko dago, emakumeen presentzia nabarmen areagotu da, eta, horrekin batera, gure bizitzari buruzko begirada. Literatura sisteman badago zer hobetua, hala ere. Baina denbora dezente beharko nuke buruan dabilkidana azaltzeko.

Atzera begiratuta, zer bide egin du literaturak?

Askok aldatu da, ezinbestean. Onerako, dudarik gabe, ahotsei dagokienez. Erregistro estandar bat dugu, hori eginda dago. Ni hasi nintzenean, euskalduna izan arren, ulertzen ez nituen hamaika hitz azpimarratzen nuen liburuetan, zorionez, gaur egun erabat egunerokoak direnak. Itzulpenetan ere ikaragarri egin da aurrera, bai autoreetan eta bai kalitatean. Prosan, beldur naiz, hala ere, ez ote garen narrazio lauago eta linealago batera ohitu. Jarrera abangoardista batzuen falta dut. Bidean, literatura aldizkariak



galdu ditugu. Eta liburu denda txiki asko. Zoritxarrez, banaketa munstroak nagusitu dira.

Zer du Iñigo Aranbarrik hastapeneko idazle hartatik?

Zer ez duen esango dizut: orduko haren kemena, orduko beharrik ere sentitzen ez dudalako, seguru asko.

Zer esango zenioke idazle hasiberri bati?

Lehen esan bezala, gure garaian inork ez zuen komertziala izan nahi. Komertziala izatea benetako literaturaren beste muturrean zegoen.

Antagonikoak ziren, erabat. Esan nahi dut norberak literaturarekin zuen harremana lehenesten zela, esan nahi zena esan behar zen, beste ezeri begiratu gabe. Beraz, bila dezala bere ahotsa. Nolanahi ere, errazena esatea da.

Ba al darabilzu liburu baterako beste istoriorik buruan?

Uste dut badudala zer kontatua. Baina ez dut hasteko beste indarrik batzen. Eta, egia esan, presa handiegirik ere ez. Horretan ere igartzen dut aldea.

Noiz hasten zara buruan daukazuna idazten? Burutik liburua eramateko falta den zera hori, etorri ala ekarri egiten da?

Etorri, egunero datozkizu ideiak, asmoak, istorioak burura. Ni ez naiz idazten hasten lehenago buruan idatzi arte. Hortxe doakit denbora, zer forma

ematen pentsatzen, zer ahots izango den, kamera non jarri behar dudana...

Bestalde, irakurle taldeetako dinamizatzailerak zara.

Azkoitian, zer-nolako taldea duzue sortuta?

Hamalagarren urtea dut Donostiakoarekin. Bigarrena Azkoitikoarekin, eta ezin adieraz dezaket zer poz izaten dudana denok elkartzeko. Liburu batekin sartu eta beste batekin irteten gara, norberaren irakurketa aberastuta. Norberak erreparatu gabeko gauzez hitz egingo dizu aldamenekoak. Talde dinamikoa dugu Azkoitian, parte hartze handia izaten da. 30 bat lagun gara, nahiz eta denok ez elkartu beti. Emakumeak dira gehienak, eta beste herri batzuen aldean, batez besteko gaztea du.

Idazleentzat errealitatearekin topo egiteko lekuak izaten al dira irakurle taldeak?

Sarritan norberaren errealitatea ez dela errealitate bakarra konturatzeko balio dutela esango nuke.

Zer asmo duzue sasoi berriko?

Oraitxe hasi gara, Coetzee hegoafrikarraren *Lotsaizuna* nobelarekin. Azarorako Arrate Egañaren ipuinak ditugu; *Itzalen distira*, egilea bera etorriko da. Eta urtarrilerako, *Landa aldeko neskak*, Edna O'Brien-ena, taldearen motoreetako bat den Gema Lopez Las Herasek zoragarriki euskaratua. ■■■


NON DAGO ZAKELMARI?



Abuztuko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 27. orrialdean zegoen ezkutatuta.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Ramon Unanue** bazkideari egokitu zaio, eta haren senideek jaso dute Herrixen merkatarik elkarteari emandako **50 euroko erosketa bonua**.

Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna urriaren 17a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo azkoitia@ukt.eus helbide elektronikora.



Komertzio
txiki
herrixen
esentzix
e





www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

B K eto * KH m ZH

• Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

• 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus

"Koadroen bidez, Bermeoko itsasoa ekarri dut Azkoitira"

NEREA BILBAO MARGOLARIA

Irakaslea ofizioz, margolaria afizioz. Bermeokoa jaiotzez, Azkoitira lekualdatu zen duela hamasei urte, eta sorterria bizitokira ekarri du Portaleburun jarri dituen koadroetan, itsasoa, arrantzaleak, ageri baitira mihise gainean. *Nere Bic* izena jarri dio erakusketari, bikia delako eta boligrafoz egindakoak direlako artelanak.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo eta Kris Fernandez**.

Azkoitiko Kale Nagusian, hondartzetatik urrun, bada pintzelez, brotxaz, pinturaz, betetako txoko txiki bat. Hormetan, arrantzaleak, marinelak, olatuak, baleak, ageri dira, ia-ia kresala arnasteraino.

Ez da olatu hotsik entzuten, baina badirudi handik itsasoa ikusten dela. Horixe da Nerea Bilbaoren (Bermeo, Bizkaia, 1979) "bunkerra"; hantxe ematen ditu orduak eta orduak margotzen. Urteak daramatza Azkoitian bizitzen, eta bilatu du sorterria bizitokira ekartzeko modua.

***Nere Bic* izena jarri diozu duela gutxi Portaleburun jarri duzun erakusketari. Instagrameko kontuan ere izen bera darabilzu. Nerea izenetik dator *Nere*, eta nondik dator *Bic*?**

Instagrameko kontua egin nuenean, *Nerebik* izena aukeratu nuen; *bik* hori da bikia naizelako. Nire ahizpa bikiak Amaia izena du, eta askotan, lagunek *Nerebik* eta *Amaiabik* deitzen digute. Horregatik egin nuen Instagrameko kontua *Nerebik* izenarekin. Eta erakusketako *Nere Bic* hori da boligrafoz egindako koadroak jarri nituelako Portaleburun. Zentzu bikoitza dauka.

Azkoitian jarri zenuena ez da zure lehen erakusketa izan; aurrez Bermeon estreinatu zinen. Noiz izan zen hori?

Bermeoko erakusketa duela bi urte jarri nuen, Aste Santuan. Mundiala izan zen, erabateko arrakasta izan zuen, eta oso pozik gelditu nintzen. Nire lehen erakusketa izan zen, nire herrian, portuan, leku zoragarrian... Lehengo arrantzaleen kofradia zaharrean jarri genuen erakusketa, eta koadroak ere arrantzari eta itsasoari lotutakoak ziren. Jende ugari bertaratu zen, eta sekulako esperientzia izan zen. Ez nuen uste hain ondo aterako zenik.

Lehenengoa hain esperientzia ona izanda, errepikatzeko gogoia piztu al zitzaizun?

Banekien Azkoitikoa hain ondo ateratzea zaila izango zela, baina esperientzia on batek motibatu egiten zaitu pauso gehiago ematera. Larhun mendian [Lapurdi] ere egin nuen beste erakusketa bat, Larungo Kaiolan. Han hamabost bat lan edo eduki nuen, eta egia esan, gauza onak entzun nituen orduan.

Eta nola sortu zen Azkoitiko aukera?

Neu joan nintzen udaletxera, erakusketa bat jarri nahi nuela eta Portaleburu aretoan zer data



zeuden libre galdezka. Iraileko tarte bat libre zegoela esan zidaten, eta hala animatu nintzen. Koadroak eginda neuzkan, baina ez da hori bakarrik izaten, lan handia baitauka erakusketa bat prestatzeak. Baina pentsatu nuen: "Egin dezaket, eta aurrera".

Sortzez Bermeokoa zaren arren, urteak daramatzazu Azkoitian bizitzen. Ilusioa egin al dizu bizitokian erakusketa jartzeak?

2007an etorri nintzen Azkoitira; beraz, hamasei urte daramatzat bertan bizitzen, eta noski, ilusio handia egin dit Azkoitian erakusketa jartzeak. Azkoitian ere lagun asko dauzkat, familia ere bai, eta esperientzia ederra izan da. Lagunek beti esaten zidaten erakusketa bat jartzeko; horrela jarri nuen Bermeokoa, eta Azkoitikoa ere berdin. Haiek izan dira bultzada.

Noiz hasi zinen margotzen?

Lehen Hezkuntzan, 10-12 urte inguru nituela. Beti gustatu izan zait margotzea, eskulanak egitea, eta pintura eskolak hartzen hasi nintzen Bermeon. Teknika ugari landu nituen: olio, pastela, ikatza... Gero, bolada batez, albo batera utzita izan nuen margotzearen kontua, baina Azkoitira bizitzera

etorri nintzenean, gogo piztu zitzaidan berriz margotzeko, koadroak-eta egiteko. Baina nola hasi? Egiten nituen neure kabuz koadro batzuk, baina zerbaiten falta sumatzen nuen. Orduan, galdezka hasi nintzen, ea herrian norbaitek klaserik ematen ote zuen, eta Udane Juaristiri buruz hitz egin zidaten. Eskerrak! Udanek bizitza aldatu zidan. Duela hamalau bat urte hasiko nintzen Udanerengana joaten. Hark irakatsi zidan zer den transfer teknika, eta horrekin mundu bat ireki zitzaidan. Transferrarekin hasi nintzen, gero boligrafoarekin probatu nuen... Horrelaxe jarraitu dut ordutik, margotu eta margotu, pozarren.

Gogoan al duzu margotu zenuen lehen koadroa?

Gaztetan egingo nuen zerbait, baina lehenengo koadroa... Azkoitira bizitzera etorri eta denbora gutxira hasi nintzen olioarekin pintatzen. Gogoan dut lagun batek koadro bat egiteko eskatu zidala, eta bi lore margotu nizkiola. Hori izango zen, agian, egin nuen aurreneko koadroa, urtetan ezer egin gabe egon ondoren.

Teknika ezberdinak landu izan dituzu zure ibilbidean, baina erakusketan boligrafoz egindako lanetan zentratu zinen.



Nerea Bilbao, 'Nere Bic' erakusketaren inaugurazio egunean, Portaleburun.

Bai, boligrafoa eta akuarela baliatu ditut batez ere, eta espraiak ere bai. Beste teknikekin landutakoak ez nituen eraman Portaleburura.

Arrantzaleak, portuak, baleak, sareak, olatuak.... Itsasoa ageri da zure margolan askotan. Zer da zuretzat itsasoa?

Neure bizitza. Itsasokoa naiz ni, han bizi izan naiz, eta hangoa izango naiz beti. Nire odoletik kresala doa, hori da nire mundua. Nire familia beti izan da arrantzalea eta saregilea. Aita, ama, aitona, amona, birramona, birraitona... denak egon dira itsasoari lotuta. Hori bizi izan dut nik; arrantzale mundua, arrainak eta itsasoa. Eta orain, barrualdean egon arren, ez dut ahaztu hori. Hori ez da ahazten bizitza osoa igarota ere.

Zure egitekoa izan da, beraz, Bermeoko itsasoa hartu eta...

Azkoitira ekartzea, itsasoaren faltarik ez sumatzeko. Beti dago presente itsasoa.

Zenbat lan jarri zenituen Portaleburun?

40, aretoa betetzeko lain. Denborarekin pilatzen joandako koadroak eraman nituen hara.

Aipatu duzu itsasoaren gaia barru-barrutik ateratzen zaizun zerbait dela, baina beste arlo batzuk ere landu dituzu koadroetan: indiarrek eta animalia batzuk ikus zitezkeen erakusketako zenbait margolanetan.

Bai, hala da. Gustuko ditut indiarrek nahiz animaliak, eta probatzeagatik egin nituen margolan horiek. Animaliak batzuk itsasokoak dira, beste batzuk oihanekoak. Horien bilduma txiki bat daukat eginda.

Urteak daramatzazu margotzen. Orain arte, gehienbat, etxerako edo lagunentzako egin izan dituzu margolanak, baina duela gutxi, lanak jendaurrean erakusteko pausoa ematera ausartu zara. Zergatik orain?

Neure buruarekiko segurtasuna sentitu dudalako. Urteetan ez ditut ikusi nire koadroak jendeari erakusteko modukoak. Lagunek eta familiakoek esaten zidaten politak zirela, baina noski, asko maite nautelako. Gainera, jendaurrean norbere lanak erakusteko, jendearen kritikak jasotzeko prestatuta egon behar da, eta neure buruarekiko segurtasuna sentitu dudanean, ahal dudala sentitu dudanean, zera pentsatu dut: "Oraintxe emango dut pausoa, eta ea zer gertatzen den". Kritika onak bezala, txarrak ere jasoko ditut, eta uste dut orain prestatuta nagoela horiek entzuteko.

Hori urteen poderioz ikasi al duzu?

Bai, zalantzarik gabe. Proba asko egin ditut, eta iruditzen zait lortu dudala neure estiloa



Bilbao, erakusketako zenbait koadrorekin, bere lokalean.

"NIRE GAIA USTE DUT ARRANTZALE MUNDUA DELA, KOLORE BIZIEKIN ETA ORBANEKIN UZTARTUTA"

"SEGURTASUNA SENTITU DUDANEAN AUSARTU NAIZ KOADROAK JENDAURREAN ERAKUSTERA"

"NIRE BIZITZAN ZENBAT ETA PINTURA GEHIAGO, ARE ZORIONTSUAGOA NAIZ"

definitzea. Nire gaia uste dut arrantziale mundua dela, kolore biziekin eta orbanekin uztartuta. Horiek dira osagai nagusiak, eta gero, pintzelak astintzean, irteten dena irteten da.

Irakaslea zara, familia daukazu... Noiz margotzen duzu?

Ahal dudanean. Gehienbat arratsaldeetan –eta ez denetan–, eta asteburuetan ere bai, batez ere igandeetan. Igandeetan normalean neuretzako eguna hartzen dut, eta ordu asko pasatzen ditut nire lokalean sartuta margotzen.

Azkoitiko Kale Nagusian hartu duzu margotzeko lokala. Zergatik erabaki zenuen zeuretzako txoko bat izatea?

Bermeon erakusketa jarri behar nuenean, harako koadro asko egin behar nituen. Urtebeteko epea izan nuen prestatzeko, eta etxean hasi nintzen margotzen, baina etxea zerritoki bilakatu zen. Horrela ezin zen, dena hankaz gora zegoelako. Horren aurrean, lokal bat nahi nuen margotzeko, eta Kale Nagusiko gunea erakutsi zidatenean, maitemindu egin nintzen. Etxean komentatu nuen lokal hori hartzea nahi nuela, babesa sentitu nuen, eta aurrera egin nuen. Oso pozik nago. Nire bunkerra da lokala. Han sartzen naizenean, neure munduan murgiltzen naiz, eta beste dena ahazten dut. Gainera, lokalaren gune batean koberturarik ez dago, eta inork molestaterik nahi ez badut, txoko horretan uzten dut telefonoa eta erabat deskonektatzen dut.

Zer ematen dizu margotzeak?

Sekulako askatasuna, lasaitasuna, deskonexioa, poza... Jendeari kirola egitea gustatzen zaion bezala, niri margotzea gustatzen zait. Pila bat betetzen nau. Margotzen hastean, neure munduan sartu eta bertan geratzen naiz. Oporretan ere margotzen dut: hondartzara ez naiz joaten boligraforik gabe. Boligrafoa hartzea ahazten bazait, zerbait falta dudala iruditzen zait.

Uda honetan ere margotu al duzu?

Bai, sei marrazki-edo egin ditut.

Azkoitian erakusketa jarrita, erronka handi bat gainditu duzu. Etorkizunerako beste erronkarik ba al duzu?

Oraingoz, horrela jarraitzea da nire asmoa. Beste lanbide bat daukat, eta horrek segurtasun ekonomikoa ematen dit. Baina marrazketari lotuta beste proiekturen bat irtengo balitzait, bi aldiz pentsatu gabe animatuko nintzateke. Izan ere, nire bizitzan zenbat eta pintura gehiago, are zoriontsuagoa naiz. Baina horrela ere oso pozik nago. Hala ere, aterik ez diot ixten ezeri. ■■■



ADIMEN ARTIFIZIALA ARRISKU BAINO AUKERA GEHIAGO

Adimen artifizialak etorkizuneko izateari utzi dio, eta edonoren eskura jarri da. ChatGPT testu sortzaile autonomoa izan da teknologia horren eztanda eragin duena, eta haren atzetik, arrapaladan etorri dira testuak, irudiak eta audioak sortzeko gaitasun handiko dozenaka sistema. Jakina da adimen artifizialak eraldaketa handiak ekarriko dituela; horren aurrean nola jokatu, hor dago eztabaida. Batzuek, gizateriaren bukaera hurbil egon daitekeela ohartarazi dute; beste batzuek, aldiz, ikertzen jarraitu behar dela uste dute, epe motzera eta epe ertainera ekarriko dituen onurak kalteak baino handiagoak izango direla iritzita. Epe luzera zer gertatuko den, berriz, ezin da iragarri.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Utzitakoa, Arnaitz Rubio Aprea eta Unax Larrañaga**.





Adimen artifizialak milioika lanposturen galera ekarriko duela, pandemiek eta gerra nuklearrek baino ondorio larriagoak eragin ditzakeela edo gizateria bera desagertzea ekar dezakeela. Hedabideetan gisa horretako titularrak irakurrita, ez da harritzekoa teknologia horren inguruan ezer gutxi dakiten herritarrek beldurra sentitzea. Are gehiago, adimen artifizialaren sektoreko adituek eta enpresaburuek egindako baieztapenak badira horiek. Eta oraindik eta areago, duela gutxira arte adimen artifizialaz ezer entzun ez, eta azken hila-beteotan bazter guztietan horren inguruan hizketan ari badira, dagoeneko errealitate bat dela esanez. Ordea, adimen artifiziala apokalipsiaren pareko jarri duten horiexek beraiek dira teknologia hori garatzeko dirutzak inbertitzen ari direnak; arriskuez gain, bestelako aukerak ere badituen seinale.



"Nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo", adierazi du Gorka Azkune (Azpeitia, 1982) informatikari eta EHUKo IXA taldeko ikertzaileak. "Adimen artifizialak potentzial handia duela ukaezina da, eta noraino irits daitekeen iragartzea, ezinezkoa. Adimen artifizialak gizateria mendeen hartuko duela esatea titular mamitsua da telebistan ateratzeko, baina uneotan tamaina horretako baieztapenak egitea gehiegikeria hutsa da".

Adimen artifiziala gizateria mendeen hartzeko bidean den teknologia gisa definituz gero, robotek kontrolatutako planeta bat etorriko zaio burura bati baino gehiagori, filmetan ikusitako irudiak, eguneroko bizimodutik urrun dauden kontuak. Baina, izatez, adimen artifiziala hori baino askoz benetakoagoa da, eta herritarrek urteak daramatzate teknologia hori erabiltzen, ziur asko horren jakitun izan gabe. Esate baterako, eskuko telefonoek adimen artifizialari esker ezagutzen dute jabearen aurpegia; Netflixek adimen artifiziala erabiltzen du bezero bakoitzari zein telesail eta film gomendatu erabakitzeko; GPSEk eta Google Mapsek adimen artifizialari esker jakiten dute erabiltzaile bati proposatutako ibilbidearen zati batean auto pilaketak daudela eta helmugara iristeko ohi baino denbora gehiago beharko duela; kirola egiteko oinetakoen beharrean dagoenari sarean nabigatzerakoan etenik gabe kirolerako oinetakoen eskaintzak azaltzea ez da kasualitatearen fruitua, adimen artifizialarena baizik; ohiko supermerkatuaren aplikazioan sartzerako erabiltzaile bakoitzaren erosketa zerrenda prestatzen duen hori adimen artifiziala izaten da; eta horrela, zerrenda nahi adina luzatzea legoke.

Adimen artifizialak, era horretako aplikazio eta erabilpenen bidez, urteak daramatza herritarren bizimodua errazten, baina azken hilabeteotako eztanda ez da horien bidetik etorri, horiena baino adimen garatuagoa duten beste zenbait aplikazioen eskutik baizik. Dударik gabe, OpenAI enpresak garatutako ChatGPT testu sortzaile autonomoa da denen artean izarra, eta haren ostean etorri dira beste hainbat, irudiak, audioa eta musika zein testuak abilezia handiz sortzeko gai direnak; besteren artean, Google Bard, Grammarly, Synthesia, Dall-e eta MusicGen.

Adimen artifizial sortzailearen booma

Herritarren eskura dauden eredu horiek adimen artifizialaren esparruan uneotan dauden eredurik onenak direla ziurtatu du informatikariak. "Agian horiek sortu dituzten enpresek izango dituzte eredu hobeak esku artean edo ikerkuntza fasean, baina guk behintzat ez ditugu; eredu horiek erreferentziak dira guretzat". Hala ere, "arazo handi bat" dutela nabarmendu du: "Denak sistema itxiak dira, eta ondorioz, ez dakigu ezer horiei buruz; ez dakigu nola entrenatu dituzten, zer informazioarekin, zer arkitektura dituzten, neurona sare horiek nolakoak diren...". Tamalgarritzat jo du hori, zientziak irekia izan behar duela defendatzen baitu azpeitiarrak, "baina enpresa pribatu horiek beste bide bat hartu dute, horrela daude gauzak eta ez dago besterik".


Azkenaldian gehien garatu eta herritarren eskura jarri dutena adimen artifizial sortzailea izan da, eta hori ez zutela espero adierazi du Azkunek. "Paradoxa bat gertatu da. Tradizionalki

pentsatu izan da adimen artifizialak eta antzeko sistemek, funtsean makinek, askoz errazago egingo zituztela guk intelektualki maila baxukotzat jotzen ditugun lanak. Baina gertatu dena justu kontrakoa izan da; guretzat intelektualki maila altukoak diren gauzak egiteko gai direla makinak. Adibidez, marrazki bat egitea, poema bat idaztea, melodia bat sortzea... Esku artean ditugun adimen artifizialeko sistemek lan horiek oso ondo egiten dituzte, eta, oro har, zientzialarien komunitateak ez zuen horrelakorik espero".

Baina Azkuneren irudiko, garrantzitsua da hori guztia testuinguruan jartzea; izan ere, azpeitiarraren hitzetan, "adimen artifizial sortzailea izateak ez du esan nahi sormena daukanik". Eta eztabaida sakonago bat atera du mahai gainera: zer den sormena. "Guk sormena al daukagu? Baietz uste dugu; baina zer da sormena? Nik dakidala, oraingoz inork ez du ondo definitu. Gertatzen dena da, sistema horiek eskura duten datu sorta mardularen ondorioz eta beraien arkitekturak diren bezalakoak direlako, gaitasun handia daukatela modalitate desberdinetako informazioa sortzeko—testuak, audioak edo musika, irudiak—, eta, gainera, oso modu txukunean egiten dituztela lan horiek". Horren inguruan eztabaida dagoela aipatu du Azkunek. "Sortzen dituzten horiek zenbateraino diren berriak, edo entrenatzeko erabilitako datu pila horretatik ateratakoarekin sortutako segida bat diren. Baina gizakiak zerbait sortzen duenean ere sor liteke zalantza hori. Musika talde bat entzun, eta zenbat aldiz esaten da beste talde baten eragina daukala? Zer esan nahi du horrek, kopiatzen ari direla? Ez, baina izan lezake bestearen estiloa edo ukitu bat".

Beldurra pertsonen, ez teknologiari

Adimen artifiziala azkar eta asko garatu da azken urteotan, baina hastapenetan besterik ez dagoela esaten dute adituek. "Adimen artifizialaren asmoa da gizakion adimenaren mailakoa den adimen bat lortzea, edo harago joatea, baina makinak erabilita", zehaztu du Azkunek. Haren ustetan, "adimen artifizialak egunen batean gizakiaren adimena gaingitu egingo du", baina hori bere ustea bakarrik dela azpimarratu du. Hori noiz izango den iragartzea, ordea, zaila iruditzen zaio. "Nik urruti ikusten dut makinek gizakia gaingitzea ezaugarri mailan. Oraindik ere gauza asko falta zaizkigu gizaki baten adimenaren pareko zoezertara iritsi ahal izateko, baina ez dakidana da hori urruti dagoen denboran. Gauzak hain azkar doaz, hainbeste diru dago arlo honetan eta hainbeste jende lanean, ez nintzateke ausartuko esatera hori bost edo hamar urte barru izango den, ez baitaukat ideiarik".



Adimen artifizialari beldurrik izan behar al zaion galdetuta, ezetz esan du Azkunek. "Adimen artifiziala, beste gauza asko bezala, erreminta bat da, eta beldurra pertsoneri eduki behar diegu, ez adimen artifizialari. Egongo dira adimen artifiziala ondo erabiltzen dutenak eta gaizki erabiltzen dutenak, eta horregatik, arautu egin beharko dira zenbait gauza, baina nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo". Adimen artifizialak hori baino "arrisku ukigarriagoak, gertukoagoak eta ezagunagoak" badituela ohartarazi du. "Jende apokaliptiko horri kasu egiten ari garen bitartean, ari gara benetako arazoak diren horiek albo batera uzten, askoz hobe genukeenean horiek konpontzen saiatzea". Arrisku horiek zeintzuk diren ere adierazi du. "Adimen artifiziala erabil daiteke guk gizarte bezala dauzkagun hainbat alborapen anplifikatzeko; adibidez, sexismoa eta arrazakeria. Gaur egun esku artean ditugun adimen artifizial sistemak guk sortutako testuekin entrenatzen direnez, dagoeneko baditugun joera negatiboak bere egiten ditu, eta horrez gainera, areagotu edo anplikatu ere egin ditzakete". Adibide bat ere eman du: "Demagun informatikari bat behar duzula eta adimen artifizial sistema bat erabiltzen duzula jendea kontratatzerakoan curriculumak jaso eta lehen galbahea pasatzeko. Adimen artifizialak guk idatzitako testu asko irakurri dituenek, informatikaria gizonarekin erlazionatzen du eta ez emakumearekin; horregatik, aukera handiak leudeke emakume askoren curriculumak alboratzeko. Hori adimen artifizialari erabilera txarra ematea litzateke, jakitun garela ko arazo hori existitzen dela. Jendea ari da ikertzen hori konpontzeko, baina badakigu badaudela enpresak sistema horiek erabiltzen ari direnak jendea kontratatzeko".

Beste arriskuetaiko bat sistema horiek esaten dutena itsu-itsuan sinestea dela ohartarazi du azpeitiarrak. "OpenAI enpresako CEO Sam Altmanek behin esan zuen ChatGPT erabil daitekeela medikuaren kontsultara joatea ordezkatzeko, eta hori izugarritzko astakeria da. Baina ez dago esaterik hori arazo berria denik: nork ez dio galdetu Googlei belaunean duen mina zer izan ote daitekeen? ChatGPTrekin are errazagoa da hori, berarekin hitz egiteko aukera ematen dizulako". Azkuneraren hitzetan, jendeak ulertu behar du horiek erreminta batzuk direla, eta esaten dutena oso urruti egon daitekeela errealitatetik edo oso gertu, gauza batzuetan asmatzen dutela, baina beste gauza batzuetan ez. "Azken baten, guk geuk oso kritikoak izan behar dugu, ezin dugu oso-osorik irentsi esan diguten dena, hanka sartze handi bat egiten ariko baikinakeke, eta gauza bera Googlei eta sare sozialei dagokienez ere. Bada jendea sare sozialetan ikusten duen guztia zuzenean egiazkotzat jotzen duena, ezer zalantzan jarri gabe. Gogoan dut irailaren 11ko atentatuen bueltan ere gertatu zirela horrelakoak. Bideo bat zabaldu zuten esanez talibanak atentatuak ospatzen ari zirela, eta bitartean, bideoa bost urte lehenago grabatutakoa zen eta palestinar batzuk ageri ziren festa batean. Orain *fakenews* gisa ezagutzen diren gezurretako istorioak beti egon izan dira, eta aurrerantzean ere egongo dira". Adimen artifiziala erreminta oso lagungarria izan daitekeela esan du ikertzaileak, baina ez edozer gauzatarako; "jakin egin behar da zertarako izan daitekeen ona eta zertarako ez".

"Adimen artifizialari ez diogu beldurrik izan behar, pertsoneri izan behar diegu beldurra"

"Mezu apokaliptikoak ematen dituzten horiei, nik ez nieke batere kasurik egingo"



Andoni Sudupe (Azpeitia, 2002) Adimen Artifizialeko Gradua egiten ari da EHUren Donostiako Informatika Fakultatean. Lehen promozioiko ikaslea da, eta ondo bidean, hasi berri duen ikasturtea izango du azkena.

Nolatan erabaki zenuen Adimen Artifiziala ikastea?

Informatika Ingeniaritza ikastea pentsatzen ari nintzen, ordenagailuak eta matematikak gustatzen zaizkidalako, baina Ingeniaritza Eskolako ate irekietako saioan adimen artifizialaren inguruko hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen, eta konbentzitu egin ninduten. Adimen Artifizialeko ikasketak Informatika ikasketen antzekoak dira, baina hardwareari lotutako gaiak gutxiago lantzen dira, eta matematikak gehiago. Informatikan esparru asko ukitzen dituzte, eta horien artean bat da adimen artifiziala; Adimen Artifizialeko ikasketak, aldiz, espezializatuagoak dira.

Zer ikasi duzu hiru urteotan?

Lehendabiziko bi ikasturteetan, gehienbat informatikari lotutako gauzak landu genituen, eta ia hasi ginen adimen artifizialean sakontzen, gaur egun dauden ereduak, horien arkitekturak, arkitektura bakoitzaren puntu interesgarrienak eta abar

"Ia ezinezkoa da aurreikustea ikasturte bakoitzean zer landuko dugun"

ANDONI SUDUPE

ADIMEN ARTIFIZIALAREN GRADUKO IKASLEA

ikusten nahiz horiek nola programatzen diren eta nola erabiltzen diren ikasten. Adimen artifizialaren barruan adar asko daude –hizkuntza, irudia, osasuna...–, eta eredu asko ere bai; adibidez, azkenaldian horren ezagun egin den Chat GPT eredu bat da.

Adimen Artifiziala ikasten hasi zinenetik, izugarri garatu eta aldatu da esparru hori.

Bai, esan liteke ordutik hona garatu dela ia dena; duela lau urte bazegoen zerbait, baina booma harrezkero gertatu da. Ondorioz, gure ikasketak ere erabat aldakorrek dira. Irakasleek ikasturtearen hasieran esaten digute irakasgai bakoitzean zer lantzen hasiko garen, baina ez ikasturtean zehar zer landuko dugun; ia ezinezkoa da hori aurreikustea.

Bizitza guztian ikasten jarraitzeko prest al zaude?

Adimen artifizialaren arloan lan egin nahi badut, derrigorra izango dut. Esparru honetan, hilabete batez deskonektatuta egotea nahikoa da bueltan zeure burua galdu-galdu eginda ikusteko.

Zein arlotan lan egitea gustatuko litzaizuke?

Praktikak Elgoibarko [Gipuzkoa] Ideco enpresan egin ditut, gradu amaierako lana han egiteko aukera eskaini didate eta ez litzaidake axolako lanean bertan segitzea ere. Robotak erabiliz, enpresei irtenbide aurreratuak eskaintzea da han egiten dutena, eta gustuko dut esparru hori.

Ez dirudi lan aukerarik faltako zaizuenik...

Ez dirudi, ez. Adimen artifizialak ekar dezakeen eraldaketaz jabetu ahala, era guztietako enpresak ari dira esparru horretan urratsak egiten.

Bada motiborik adimen artifizialari beldurrik izateko?

Adimen artifizialari ez, baina agian bai batzuek eman diezaioketen erabilerari.

"ERA GUZTIETAKO
ENPRESAK ARI DIRA
ESPARRU HONETAN
URRATSAK EGITEN"



Abokatua eta adimen artifizialean aditua da Elen Irazabal (Zarautz, 1990). Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta doktoregaia da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Abokatuei programatzen irakasten die eta *La inteligencia artificial explicada para abogados* liburuaren egilea da.

Noiz hasi zinen adimen artifizialean interesatzen?

Zuzenbidea ikasi ostean, Nazioarteko Harremanetan graduondokoa egin nuen Madrilen, eta gero, Indiara joan nintzen bidaian. Han atentzioa eman zidan herritarren oinarritzko beharrak estali gabe egon arren, denek zutela smartphone bat esku artean. Zarautzera itzuli nintzen eta bizpahiru urtean arlo juridikoan aritu nintzen lanean, nahikoa denbora jabetzeko zein gaizki funtzionatzen duen esparru horrek. Garai hartan dagoeneko Big Dataz hitz egiten zen eta adimen artifizialaz hitz egiten ere hasita zeuden adituak. Petrolio berria datuak izango direla eta horrelakoak esaten dituzte, eta neure erara ikertzen eta ikasten hasi nintzen. Madrilera bueltan, esparru horretan sakontzen jarraitu nuen, zibersegurtasunaren

"Adimen artifizialaren inguruan, eztabaida lasaiagoa behar dugu"

ELEN IRAZABAL

ABOKATUA ETA ADIMEN ARTIFIZIALEAN ADITUA

arloan lanean hasi nintzen, eta abokatuei ikastaroren batzuk emateko deitzen hasi zitzaizkidan. Jauzia, ordea, pandemia garaian egin nuen: autonomo egin nintzen, eta *Abokatuentzako konputazio zientziak eta programazioaren logika* ikastaroa ematen hasi nintzen. Adimen artifizialaren inguruko kontzeptuak abokatuei beraiek ulertzeko moduan azaltzen saiatzen naiz.

Azken hilabeteetan adimen artifizialaren eztanda gertatu da, eta ekar ditzakeen onurez ez ezik, arriskuez ere ohartarazi dute batek baino gehiagok, nahiko mezu katastrofisten bidez, gainera. Beldurtzeko motiborik badela uste duzu?

Gaur egun eta epe ertainera, adimen artifizialak ekarriko dituen onurak kalteak baino askoz handiagoak izango dira. Adibidez, osasungintzan, minbiziaren kontrako borrokan eta, aurrerapen handiak egiten ari dira adimen artifizialari esker. Baina horrek ez du kentzen arriskuak ere badituenik. Epe luzera begira, esaterako, ez dago batere argi zer gerta daitekeen, ez baitakigu noraino iristeko gai izango garen. Gizakien adimena gaindituko duen adimen artifizial bat sortu nahian gabiltza, baina ez dakigu lortuko dugun ala ez, eta lortzen badugu zertara eraman gaitzakeen horrek eta zein izan daitezkeen ondorioak.

Adimen artifiziala arautzeko beharra nabarmendu dute batek baino gehiagok. Gaur egun ba al dago adimen artifizialari eragiten dion legedirik?

Adimen artifiziala arautuko duen legedia lantzen ari dira Europako Batasunean, baina egun indarrean dauden lege batzuek dagoeneko eragiten

"EPE LUZERA BEGIRA GERTA DAITEKEENA EZ DAGO BATERE ARGİ, EZIN DA AURREIKUSI"

diote adimen artifizialari; esate baterako, datu pertsonalen babeserako legeak eta zibersegurtasunaren ingurukoak.

Europako Batasunean adimen artifizialaren inguruko araudia lantzen ari direla esan duzu.

Nolakoa izan behar luke araudi horrek?

Adimen artifizialaren inguruan legedi espezifiko bat lantzen ari dira, bai, baina horrek ez du esan nahi araudi hori ona izango denik, eta adimen artifiziala behar bezala eta egoki arautuko duenik. Aurrena, indarrean dauden legeek adimen artifizialari nola eragiten dioten zehatz-mehatz jakiteko azterketa bat egin beharko litzatekeela uste dut, ikusteko zer dagoen eta zer behar den. Adimen artifiziala arautzeko lege bat egingo dute, baina adimen artifizialaren esparruan gabiltzanon jarduna lege horrez gain beste batzuek ere arautuko dute, esaterako, nire kasuan, autonomoen inguruko legediak. Batak besteari nola eragingo dion aztertu gabe jarduteak dena lausotuko du eta ez zait iruditzen prestatzen ari diren legedi hori behar bezain argia eta eraginkorra izango denik.

Arautu al daiteke horren dinamikoa den zerbait?

Adimen artifizialaren inguruko proposamena pasa den urteko apirilean atera zen eta oraindik ez dago indarrean. Hau da, urtebete baino gehiago pasatu da, eta oraindik ez dago garbi noiz jarriko den indarrean. Prozesu legegileak motelak dira, burokratikoak, baina adimen artifizialak ez du itxarongo.

Adimen artifiziala noraino irits daitekeela uste duzu? Ikusten al diozu mugarik?

Adimen artifizialaren inguruan iragarpenak egitea oso zaila da, ezinezkoa. Uste dut inor gutxik espero zuela adimen artifiziala horren indartsu sartuko zen esparruetako bat arte sorkuntzarena izatea, eta begira zer ari den gertatzen. Gaur egun baditu mugak, muga filosofikoak, muga fisikoak eta abar. Gakoa izango da muga horiek gainditzeko gai izango garen ala ez, eta gainditzea lortzen badugu, noiz izango den hori.

"ADIMEN ARTIFIZIALAREN
INGURUKO LEGE BAT
EGITEAK EZ DU ESAN NAHI
HORI ONA IZANGO DENIK"

Zure ustez, gaur egungo ezagutzaren mugak modu autonomoan gainditzeko gai izango al da?

Hori ikusi egin beharko da, zaila da horrelako zerbait aurreikustea. Printzipioz, adimen artifiziala gure adimena baino azkarragoa bada, guk espero ez ditugun edo espero ezin ditugun gauzak ager daitezke.

ChatGPT bezalako tresnak gizakiek sortutako ezagutzaz elikatzen badira, nola eman dezake urrats bat harago?

Adimen artifizialaren ikaskuntza prozesua eta gurea ez dira berdinak. Adimen artifizialak datu bolumen handietatik ikasteko gaitasuna du, eta gizakioi ez bezala, adimen artifizialari ez zaio ezer ahaztuko. Hori da iragarri ezin den bere osagaietako bat eta arrisku gehien sor ditzakeena, ez baikara gai horrek izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko.

Argi dago adimen artifiziala aukera asko eskaintzen dituen tresna dela. Hortaz, alderdi batzuetatik zergatik ari dira adimen artifizialaren inguruko ikuspegi ezkorra indartu nahian?

Gaur egun beldur handiegia dago adimen artifizialaren inguruan, eta eztabaida lasaiegia behar dugu. Onurak arriskuak baino handiagoak izan arren, egia da arriskuak ere hor daudela, eta normala da jendea kezkatuta egotea; adibidez, teknologia horrek bere lanean izango duen eraginarekin. Adimen artifizialak gaur egun egiten ditugun lanen balioa aldatu egingo du. Adibidez, sektore juridikoan, nik ezagutzen dudana horretan, gaur egun oso lan automatikoak egiten dituzten horiek dira beldur gehien izan beharko luketenak. Izan ere, abokatu baten balioa ez datza informazioa ekoiztean, hori adimen artifizialak egin dezake.

Hainbat lanbide eraldatuko ditu, baina enplegu berriak ere sortuko ditu.

Bai, noski. Internet iritsi zenean ere antzeko zerbait gertatu zen. Askok ziren teknologia horrek izan zitzakeen mehatxuak edo arriskuak salatu zituztenak. ■

Andramaixek



JOSE RAMON ARANBARRI

Aurtengo andramaixetako programako liburutxoaren kontrazalean honako lelo hau irakurri ahal izan da: *Ondo pasa, pasatu gabe!*

Abuztuaren 4an, goizen goiz, Azpeititik zetorren autobus bat hartu nuen. Bertan gazte asko zegoen. Azpeitiko festetatik gaupasa eginda zihoazela pentsatu nuen, baina eserleku batean zegoen neska gazte batek arreata piztu zidan; lo zetorren eguzkitako betaurrekoak jantzita, eta lepoan hiru txupoi zituen. Autobusa geratu zenean, jaitsi egin zen eta balantzaka ikusi nuen; ez dakit ondo edo gaizki pasatu zuen, baina garbi daukat pasatuta zegoela.

Abuztuaren hasieran lagun batek komentatu zidan festetan kanpora joatea pentsatzen ari zela; adierazi zidan bera bizi den kalea "*calle sin ley*" dela; asteburuero, eta noski, festetan are eta gehiago, kale horretan gizon-emakume gazteak, eta berak dienez oso gazteak, ikusten ditu pixa, kaka edo botaka egiten, zarata eta buila ateratzen eta antzeko beste zenbait egoera pairatzen dituela. Kasu horietan ere ez dakit ondo edo gaizki pasatuko duten gazteek, baina pasatuta behintzat pasatzen dutela dirudi.

Andramaixek eta, orokorrean, herriko festak

gazteei bideratuta daude. Adin bat daukagunok festak beste era batera bizitzen ditugu, eta zergatik ez, baita distantzia batekin ere. Festek ez daukate zerikusirik gazteak garenean edo behin adin bat daukagunean; eta tamalez, gure gazte garaian egiten genuan bezalaxe –ezinezkoa ukatzea–, festetan ondo pasatzea alkoholarekin edo beste droga batzuekin lotzen dugu gaur egun ere.

Gaztetan, festak gozatu eta disfrutatu egiten ditugu gauez, eta ez gara ohartzen egunez festarik dagoen edo ez; bost egunez gautxoriak bihurtzen gara, eta alkoholarekin lotzen dugu gauez gozatzea; alkohola droga bat da eta badirudi gizakiok, gure kulturari behintzat, ez daukagula gaitasunik drogarik gabe ondo pasatzeko. Edozein festa, otordu edo ospakizun alkoholarekin lotzen dugu.

Espainian Bigarren Hezkuntzan drogen erabilerari buruz 2021ean egin zuten Estudes inkestaren emaitzek diotenez, gazteak batez beste

14 urterekin hasten dira alkohola edaten, eta urtebete geroago, astero edaten dute. Alkoholarekin, gure alderdi kritikoa itzali egiten da, gure inhibizioak desagertu egiten dira, ez dugu hitzen eta ekintzen ondorioetan pentsatzen, mugimendu trebetasunak galtzen dira eta biharamunean izugarritzko ajea izaten dugu. Alkohola, osasunerako oso kaltegarria den arren, kulturalki zuritu dugun droga toxiko bat da, eta alkohola kontsumitzea ohitura bihurtzen denean, arriskutsua izan daiteke; izan ere, alkoholismoaren lehen urratsa izan daiteke, are gehiago haur eta nerabeen kasuan, haiek garuneko egiturak oraindik ez dituztelako erabat garatuta. Alkoholak gorputzari eragiten dizkion kalteak handiak dira, eta horrez gain, nerabeetan alkohola nahi gabeko haurdunaldiaren eta sexu transmisiozko infekzioen faktore garrantzitsuenetako bat da. Gainera, alkoholaren eskuragarritasuna erabakigarria da suizidioen eta suizidio saiakeretan.

Uste dut gazteak garenean ez dakigula ondo pasatzen pasatu gabe, eta bizitza aurrera doan heinean eta urte batzuk ditugunean, gautxori izateari uzte diogunean, ikasten dugula pasatu gabe ondo pasatzen. ■

**EZ DAKIT ONDO EDO
GAIZKI PASATUKO
DUTEN GAZTEEK, BAINA
PASATUTA PASATZEN
DUTELA DIRUDI**

-%30 GUZTIAN

Etorri gure supermerkatua ezagutzera eta
%30eko deskontua izango duzu GUZTIAN.
Bakarrik urriaren 15era arte. Ez utzi aukera hau pasatzen.



BM
Freskoa, gurea.

Promozioa urriaren 15era arte izango da baliagarria, Txerloia Auzoko 8. zenbakiko (Basterre poligonoa, Azkoitia) BM Supermerkatuan.
% 30eko deskontua supermerkatuko produktu guztietan izango da baliagarria. Deskontua 10 €-ko trasteletan emango da,
30 €-tik gora erosketetan trukatzeko, 2023ko abenduaren 31ra arte. Ezinbestekoa da BM Kontua izatea.

"Emakumea izanda, zaila da kirol batean aritzea"

NAGORE SILVAN ESKUBALOI ENTRENATZAILEA

Eskubaloi jokalaria izandakoa eta entrenatzailea da Nagore Silvan. Legazpin, jaioterrian, eman zituen lehen pausoak, eta Azkoitian ez dio utzi zaletasun duen jardunari. Ibilbidean, hainbat "traba" gainditu behar izan ditu kirolariak. Aste Santuko prozesioan ere parte hartzen du azken urteetan.

Testua: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **utzitakoak**.

Eskubaloia lotuta eraman du bizitzaren zati handi bat Nagore Silvanek (Legazpi, Gipuzkoa, 1975), eta kirol horretan murgilduta jarraitzen du oraindik, entrenatzaile lanetan ari baita azken urteetan. Dena den, beste hainbat arlo ere jorratu ditu Azkoitiko bizilagunak.

Legazpin hazi eta hezi zen Silvan, eta jaioterrian eskubaloian aritzeko "ohitura" zegoela eta, hango taldean eman zituen eskubaloiko lehen pausoak. Kirola eta ikasketak uztartu zituen hainbat urtez, baina Bilbon unibertsitateko ikasketak hastean heldu zitzaizkion arazoak: "18 urterekin seniorra nintzen, baina Bilbon ikasten nuenez, ezin nuen herrian entrenatu". Hori horrela, Bilbon hasi zen eskubaloian entrenatzen, eta Ohorezko Mailan jokatu zuen, harik eta taldea desagertu eta eskubaloia lagatzea erabaki zuen arte.


Hainbat urtez kirol hori utzita egon ostean, eskubaloira itzuli zen Silvan, baina ez jokalaria moduan; entrenatzaile izatea erabaki zuen, guraso talde batek bultzatuta. 2017an sortu zuten Munoandi eskubaloi taldea Azkoitian, eta Silvanek boluntario modura lan egin izan du han; entrenatzaile, hain zuzen. Gaur egun,

hainbat adinetako hamabi gazte aritzen dira taldean. Adin bereko behar beste jokalaria ez daudenez, Azkoitiko taldeak Elgoibarko Sanlo taldearekin zein Urolako taldearekin kolaboratu izan du azken urteetan.

Gaur egun ere, "isilpeko lanean" jarraitzen du taldeak: "Futbolean nolabait baztertuta utzi dituzten gazteak hartzen ditu taldeak eta horren adibide dira Urola taldean dauden gazte batzuk", esan du Silvanek. Entrenatzailearen hitzetan, "ohikoa" izaten da ingurukoek egiten dutena egitea: "Azkoitian jende asko hasten da futbolean zein saskibaloian inguruko guztiak joaten direlako, baina gerora, 14 bat urteren bueltan, askok laga egiten dute".

Eskubaloia dagokionez, herrian hainbat trava aurkitu dituela azpimarratu du entrenatzaileak: "Munoandi talde bezala kiroldegian entrenatu ahal izateko, hango jokalaria guztiek kiroldegiko txartela izatea derrigorra da, eta ez zait justua iruditzen kirola egiteak kostu bat izatea". Klubaren kuota doakoa izanagatik ere, kiroldegian ordaindu beharrekoa "oztopo handia" da Silvanen ustez, taldean parte hartzeko zein kirola probatzeko garaian.

Generoak ere ekarri dizkio zenbait arazo legazpiarrari: "Emakumea izanda, zaila da kirol





batean aritzea; laguntza gehiago eman beharko zizkiguten". Eskubaloian emakume entrenatzaile gutxi daude, eta horregatik, Gipuzkoako Eskubaloia Federazioak ikusgarritasuna eman nahi izan die horiei, sari bidez. Hain zuzen, denboraldiko emakume entrenatzaile onenaren sarirako izendapena jaso zuen Silvanek, baina bere hitzetan, egoera "normala" balitz, ez litzateke sari horren beharrik egongo.

Emakumeen taldeetan emakume entrenatzaileak ikustea "ohikoa" bada ere, gizonen taldeetan ez dela gauza bera gertatzen azpimarratu du legazpiarrak: "Orain dela bi urte, senior gizonen talde bat entrenatu nuen, eta kategoria horretan, ni nintzen emakume entrenatzaile bakarra". Entrenatzaile lanetan, "arazoak" izan ditu emakume izateagatik: "Epaile batzuk ez dute berdin ikusten emakume batek edo gizon batek protesta egitea". Genero desberdintasunaren "errua", ordea, ez dute erakundeek soilik; gizarteak ere konprometitu egin beharko lukeela adierazi du entrenatzaileak. Izan ere, emakumeek kirolean pairatzen duten egoera "gizartearen isla" da, Silvanen esanetan.

Elizan eta politikan

Kirolean ez ezik, beste hainbat arlotan ere aritu izan da Azkoitiko bizilaguna, eta horren adibide da 2017ko Aste Santuan herritarrek ikusi ahal izan zuten irudia. Izan ere, urte hartan,

emakumeek lehen aldiz pausoa eraman zuten prozesioan: Silvanek berak, Monika Lorenzok, Maialen Silvanek eta Nerea Machadok, hain zuzen ere. "Ez zegoen planifikatua. Pausoan eramaten duten irudia janzten zein garbitzen ibili ginen hasieran, beste emakume batzuek irakatsita, eta afari bat egin genuen prozesioan laguntzen ibili ginen guztiok. Esan ziguten pausoa eramateko jendea falta zela, eta pisuari zegokionez, nahiko eramangarria zela. Elizan bertan probak egin genituen eta prozesioan ateratzea erabaki genuen".

Bide horretan, herriko parroko Felix Azurmendik emandako laguntza azpimarratu du Silvanek: "Trabak ipini beharrean, lehen unetik aurrera egiteko esan zigun hark". Herritarren

Nagore Silvan

- **Adina:** 48 urte.
- **Ikasketak:** Kazetaritzako Gradua.
- **Lanbidea:** Gasolindegiko langilea.
- **Eskubaloiko entrenatzailea ez banintz...**
Jokalaria izango nintzateke.
- **Entrenamenduetatik ateratzean gogoko dut...** Kafesne bat hartzea edo tertulian aritzea.



erreakzioez gogoratuta ere, oroitzapen onak ditu Silvanek, emakumeen parte hartzeak zer harrera izango zuen "beldur" baitziren: "Emakume askok ilusioz eta pozez hartu zuten berria; ez nuen espero". Dena den, guztiek ez zuten begi onez jo emakumeek pausoa eramatea, eta kritikak ere jaso zituztela adierazi du. Silvanen iritziz "penagarria" da emakumeak halako ekintzetan ikustea gizartearentzat albiste izatea, eta gustatuko litzaioke gizarteak normalizat hartzea emakumeek prozesioetan parte hartzea.

Lehenengo urtekoa "kasualitatea" izan bazen ere, geroztik ia urtero saiatu dira pausoa eramaten, eta jende asko hurbildu zaie laguntza eskaintzera, izan irudia garbitzeko edo hura eramateko. Aste Santuko unea, beraz, "oso berezia" bihurtu da legazpiarrentzat.

Politikagintzan ere ibilbidea egin du Silvanek, Azkoitia Bai herri plataformaren eskutik. Orain dela zortzi urte inguru batu zen taldera; hain

zuzen ere, taldearen planteamendua "herritar guztien onerako" zela iritzita: "Oso koherentea eta desberdina iruditu zitzaidan hasieratik". Silvanek gogoan du taldearen sorreran "oso gutxi" zirela, eta taldea aurrenekoz aurkeztu zen udal hauteskundeetan "zaplastekoa" jaso zutela. Hala ere, "lanean" jarraitzea erabaki zuten, "tokiko politika" bultzatzeko asmoz. Jose Joakin Etxaniz Azkoita Bairen egungo udal ordezkararen lana goraipatu du Silvanek: "Hark egin duen lana ezin da diruarekin ordaindu". Azken udal hauteskundeen emaitzei erreparatu, herritarren "iritzi aldaketa" azpimarratu du Silvanek: "Herritarrek ikusi dute txikitik hasita handia konpon daitekeela, baina ez alderantziz". Alderdi politiko txikiak beharrezkoak direla azpimarratu du: "Alderdi zirikatzailleak, konformatzen ez direnak, beharrezkoak dira, Azkoitian bereziki, ez baikara aldaketaren oso zaleak". ■■■

bertako
igogailuak | ascensores

Beretako orotarikoa zerbitzua

100€-tik /hileko



Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

2.500 bezerok gugon dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus




Sudokua


Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Espera zahar bat agertuko zaizu.



AIZU, BA
NIRETZAT TRIKUA
S



Hitz ezkutua

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana folta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadratxo duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduz ari direla biak.






BAI POLITA
HITZ HORI!

Nahas-Mahas

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.



Engainagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honako zortzi

irudi-zatitxoen artean erdiak engainagarriak dira, hau da, ez dagoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



Bilatu

Gure trikuari berraskiloak, bareak, intsektuak, harriak, txoritxoak, arrautzak, zizak, fruitu garriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Euskara eta debekua, biak bat zirenekoa

TESTUA: **KEPA ALBERDI**

ARGAZKIAK: **UTZITAKOAK**

Hizkuntzak hiztunengan gauzatu direla esaten da, berengan bizi direla, eta mintzaira baten historia bere hiztunena dela ezinbestez. Euskarak, berak, ezin du ezer egin bere kabuz, euskaldunek bakarrik baztertu edo garatu, pobretu edo aberastu, moldatu eta normalizatu dezakete hizkuntza hori. Hori horrela, euskal hiztunak izan dira beti, euskara urratu, zigortu, eta azken finean, ukatu izan nahi dutenen jomuga.

Erdi Arotik, Euskal Herriaz eta nortasunaz jabetzeko lehian aritu ziren erresuma eta estatuek hizkuntza politika esplizituak egin zituzten, euskararen ordezkapena helburu zutela. Borboitarren dinastiarekin politika horiek areagotu egin ziren, eta etenik gabe jarraitu dute, euskararentzat ondorio sakon eta kaltegarrien ernamuin izan diren moduan, gaztelaniarentzat eta frantsesarentzat mesedegarriak izanez. Horren ondorioz, Gipuzkoan, 1866. urtean euskara %96,6k ezagutzen zuten, eta 1996an, %51,5ek. Azkoitian euskararen erabilerak horrenbesteko beherakada izan ez badu ere, ez da izan hamarkada horietan Madrilgo gobernuek hartutako neurri faltagatik. Azkoitia, gaur egun, euskararen arnasgune dela esan daiteke, azkoitiarrek bere presentzia mantentzen jakin dutelako, ezarritako zentsura,

debeku eta beto guztiak gaindituz.

Mende batzuk atzera eginda, dokumentu askotan ikusten dira Azkoitian gaztelania erabiltzera bideratutako irizpenak; kasu askotan aginduak. Hurbilagokoa da, 1916koa, Bizkaiko gobernadore zibilak euskara erabiltzeko debekua jarri zueneko, hain zuzen ere. Galarazpen hark Azkoitiko Udal Batzarra eginarazi zuen, eta mozio bat aurkeztu zen. Honela zioen euskararen erabilera defendatzen zuen mozio hark: "Gobernadore zibilak kaleratu duen agindua gure hizkuntza komuna den euskararen aurkakoa dela iruditzen zaigu, bere erabilera debekatuz. Baita, zentzu berean, Espainiako Akademiaren presidenteak Ministerioari egin dion erregua ere. Izan ere, biek, gure aurrekoek utzitakoa kendu nahi digute eta gure fedearen defentsarako daukagun azken harresia bertan behera bota. Beraz, bi gauzengatik gure protesta azaldu nahi dugu". Azkoitiko agintariak bat etorri ziren aurkeztutako mozioarekin eta aho batez erabaki zuten protesta egitea.

**EUSKARAZ HITZ EGITEA
OZTOPATZEKO, HERRIKO
ZEIN AUZOKO
ESKOLETAN ERAZTUN
BAT ERABILTZEN ZUTEN**

Urte batzuk geroago ere, Bigarren Errepublikara garaian, euskara erabiltzearen aldeko ekimen txiki batzuk izan ziren Azkoitian. Izan ere, azkoitiar asko euskararen gainbeheraren testigu ziren eta eguneroko jardueran beren hizkuntzan komunikatzen jarraitu nahi zuten. Adibide moduan, 1932an, La Asunción kooperatibako batzarraren bilkuran, ohi bezala, aurreko batzarreko akta gaztelaniaz irakurri zuten, eta Jose Manuel Lizarralde eskaera bat egin zuen, aktak aurrerantzean "arraza-hizkuntzan" irakurtzeko esanaz. Aho batez onartu zuten aktak euskaraz irakurtzea.

Bi hamarkada geroago, 1936ko Euskal Autonomia Estatutua eguneroko bizitzan euskararen erabilera areagotzeko pizgarria izan zen. Honela zioen 7. artikuluko F atalak: "Euskaraz hitz egiten den lurraldean zerbitzua ematen duten funtzionario guztiei eskatu ahal izango zaie euskara jakitea". Baina urte horretan bertan gertatu zen Francok zuzendutako altxamendu militar faxista, eta orduan eta gerraosteko urteetan hartu ziren euskararen aurkako neurririk zorrotzenak eta krudelenak, hura hiltzorian uzteraino.

Arrapaladan ezarri ziren gaztelera ez zen beste hizkuntzak ito eta desagertzeko lege eta arauak, eta haietako askok zuzen-zuzenean eragin zioten euskarari. Euskarazko izen eta inskripzio oro kentzera



Artxamendi ikastola.

behartzen zituzten legeak jarri zituzten dekretu bidez, horiek gaztelaniazko transkripzioekin ordezkatzera derrigortuz. Justizia ministerioak 1938an onartutako arauetako batek zioenez, pertsona izenak gaztelaniaz idatzi behar ziren. Era berean, euskaraz idatzirik zeuden kaleen izenak ere gaztelarrera aldatu zituzten Azkoitian. Dena den, kaleen izenak ez ziren soilik hizkuntzari zegokienean aldatu: udaletxea dagoen plazari, adibidez, *Plaza 20 de septiembre* izena jarri zioten, faxistak Azkoitian sartu ziren eguna gogoratzuz; tren geltokiraino doan kaleari *Avenida de Calvo Sotelo* jarri zioten, eta Floreagatik Atxabaletara doan kaleari, *Teniente Coronel Valenzuela*. Hildakoak ere ez zituzten bakean utzi, euskarazko inskripzioak agertzen ziren hilobi edo panteoien senide eta jabeei, lauzak kendu eta aipatutako inskripzioen ordezk

gaztelaniazkoak ipintzea eskatzen baitzitzairen. Aldizkari, liburu eta egunkarietan ere euskaraz ezer inprimatzea guztiz debekatua egoteaz gain, 1941ean, filmak gaztelania ez zen beste hizkuntza batean ematea debekatu zuten.

Espainiako gerra amaiturik, erasoek ez zuten etenik izan, eta Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarrak gupidagabeki pairatu zituen jazarpen bat baino gehiago. Atxilotu egin zuten, aurretik gaztelaniaz azaldu zuen sermoia euskaraz esateagatik. Azkenean, absolbitu egin zuten. Beste batean, Etxaniz Donostiako Urbietako kalean zihola beste apaiz lagun hizketan hasi zen, euskaraz, eta horra non handik igarotzen ari zen batek zer esan zien: "*Señores curas, hablen en castellano, que somos españoles*". Baina apaiz biak ez zeuden horretarako, eta Etxanizek zera esan zion hari: "*No somos castellanos. Y ahora es*

cuando no estamos hablando español. Esta lengua es latín, y ésta mató a todas las lenguas de España menos la nuestra". Bestea, guztiz haserreturik, honela zuzendu zitzaion Etxanizi: "*Le voy a denunciar al obispado. Soy Teniente General*". Azkenik, Etxanizek erantzun: "*Oiga! No deje, por favor, de hacerlo. Me divertiré mucho. Apunte: soy Nemesio Etxaniz Aranbarri*". Militarrak, sutan zela, alde egin omen zuten. Esan gabe doa, apaiz hura ipuin, antzerki, olerki eta irrati gidioen idazle izateaz gain, euskal kantagintza berriaren aitzindari eta berritzaileetako bat izan zela. 1951ean, *Kanta-kantari* kantutegia argitaratu zuen. Ez Dok Amairuko kideekin ere harreman handia izan zuen, eta talde haren sorreran parte hartu zuen.

Beste elizgizon azkoitiar batek ere, Monsinore Eginok, zeresan handia izan zuen 1952an, Olazko



Monsinore Eginu gotzai azkoitiarra, Loiolan, Olazko Ama Birjinaren koroaketan.

Ama Birjinaren koroatzean, Azpeitian. Gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteaz gain, "Euskal Herria", "gerra fratrizida" eta antzeko kontzeptuak aipatu zituen hark hitzartzean. Gipuzkoako gobernadore zibila, Garicano, bertan zegoen, eta entzundakoagatik nahigabetuta eta euskararen erabilerari gehiegizkoa zela iritzita, Aita Errandonea Loiolako egoitzako nagusiari zuzendu zitzaion, ekitaldiaren antolatzaileetako bat zen Aita Gaztelumendi erbesteratzeko mehatxua eginez. Mehatxua bete zuen, elizgizonak Huescara (Espainia) joateko agindua jaso baitzuen. Handik gutxira, ordea, Loiolara bueltatu zen.

Gerra garaian bata bestearen atzetik inposatzen zituzten lege edo arauen artean, *Nazio bakarra eta hizkuntza bakarra* leman oinarritutako 1936ko *urriko Francoren Adierazpena* zegoen. Aitorpen hura urratzen zuen edonori kargu hartzen zitzaion, eta bidezkoa zen, isuna

ezartzeaz gain, neurri gogorragoak hartzea. Hala gertatu zen Urolako Trenaren zuzendariarekin: 1938an, brigada buruak zuzendaria berehala kargutik kentzea agindu zuen, euskarazko inskripzioa zuten txartelak banatzearen arduraduna zelako zela.

Kirolean ere ezagutu izan dira, euskararen erabileraren debekua dela eta, gertaera xeble bat baino gehiago. 1954an, Anaitasuna eta Santanderreko Rayo Cantabria taldeek elkarren aurka jokatu zuten Kantabriako hiriburuan. Partidaren zati batean, Anaitasunako bi jokalarik euskaraz hitz egin zuten, eta ondorioz, epaileak partida geldiarazi eta bi jokalariei kargu hartu zien, berriaz horrelakorik gertatu ezker, zelaitik kanporatuko zituela mehatxatuz.

Heziketan, aparteko eragina

Euskararen jazarpena ez zen kalera bakarrik mugatu, ikasgeletara ere iritsi zen, eta

gaztetxoan heziketan aparteko eragina izan zuen. Gerraostean, ikasgaiak gaztelaniaz bakarrik ematen ziren. Eskolak emateko zailtasun handia zegoen, gehienetan ikasleek eta irakasleek ez baitzuten batak bestearen jatorrizko hizkuntza ezagutzen. Bestalde, herriko auzo batzuetako eskoletan, bertako neskak jartzen zituzten irakasle lanetan, eta haiek ere gaztelaniaz ez zekitenez, nekeza egiten zitzaion gaztelaniaz irakastea, baina, nola edo hala, horrela egin beharra zuten. Martirietan, adibidez, hango haurtxoek Miserikordiara jaitsitakoan ikasten zuten gaztelaniaz. Bestalde, euskaraz hitz egitea ahal zen neurrian oztopatzeke, ohikoa izan zen herriko zein auzoko eskoletan eratzun bat erabiltzea. Eratzuna euskaraz hitz egiten zuen ikasleari pasatzen zitzaion, eta eguneroko eskola amaitzerakoan eratzun hura zuenari zigorra ezartzen zioten. Gauzak horrela, eratzunak helburu bikoitza zuen: batetik, ikaskideek beldurra



Azkoitiko plaza nagusia, *Plaza 20 de septiembre* izenarekin.

zuten eraztuna zuen ikaslearena hurbiltzeko, eta bestetik, ikasleak beraiek hartzen zuten laguna salatzeak lana. Floreagako ikastetxean *Hermanos de las escuelas cristianas* zeudenen, eskola barruan ondo kontrolatuta egoten ziren gaztetxoak, baina errekreora ateratzerakoan eraztun bat izaten zuten, bata besteari pasatzeko. Errekreoa bukatutakoan eraztuna zeukanari puntuak ematen

zitzaizkion, eta horren ondorioz, eskolatik Madariagara edo Urrategira irteerak zeudenean, eraztuna gehiagotan izan zuena zigortzen zen, eta hura ez zen txangoa egitera joaten.

Herri barruko eskoletan bezala, Martirieta, Olaso, Urrategi, Madariaga eta beste auzoetako eskoletan gaztigu ugari izaten zen. Ikasleei egindako zigor fisikoak eta umiliazioak ohikoak ziren; kaskarrekoak emateaz gain, bazen beste gehiegikeriarik

ere euskaraz aritzen zenarentzat. Esate baterako, Floreagan erratza eta palarekin gela garbitzera zigortzen zituzten, eta Olason belarriak jartzen zituzten liburuak eskuetan zituztela.

Frankismoaren azken urteetan, ikastolak zabaltzea ametsa zen askorentzat. 1966an, garai hartan euskarak pairatzen zuen jazarpenari aurre eginez, Azkoitiko ikastolaren bultzatzaile eta sortzaile izango zirenak biltzen hasi ziren. Abertzale haiek beltzak ikusi zituzten proiektu hura aurrera ateratzeko urratsak egitean; bilerak ere gauez egiten zituzten, klandestinitate kutsu osoarekin. Gerora ere, guztia oztupo eta traba zen: Guardia Zibila bera sartu zen ikastolako geletara, han zer zegoen edo gordetzen zuten behatzera.

Azpitarratzekoa da herritar haien meritua, debekuz eta eragozpenez betetako egoera larri hartan, Azkoitiko haurrak euskaraz ikasteko lehen gelak martxan jarri baitzituzten.

Esan daiteke hiztun euskaldunak zama astun moduko bat daramala; mendeetan iraun duen isekarako eta gutxiespenerako joera, alegia. Euskara indarrez urratu eta desegiteko saiakerak aspaldikoak dira, baina euskarak betidanik azaldu duen bizinahi egoskorrari esker, jatorrizko nortasuna mantendu du. Euskara ikertzaileek zera diote: milaka urtetan inbasioen eragina jasan duen jatorrizko hizkuntza baten Europako biziraupen kasu bakarra dela euskararena, eta hori gertaera historikorik harrigarrienetako bat del. Egia esan, ez zaie arrazoirik falta. ■■■

#aldamioeguna



IRENE ELORTZA

Gutxi falta da. Gero eta hurbilago dago eguna. Urteak eta urteak eman ditugu zain, eta, azkenean, gure pazientziak fruitu gozoa ekarriko digu opari. Herriko zaharrenek memoriaren ertz batean erdi ahaztuta daukagun irudia berreskuratuko dugu. Gazteenek, berriz, berpiztuko den Azkoitiko postal zahar baten bertsio koloreztatua ezagutuko dute. Herrira etortzen diren turista eta bisitari urriek parrokia ondoko eraikinari erreparatuko diote eta ez dira aldamio zatar batekin ikaratuko. Mudejar estiloko leihoak ederretsiko dituzte azkenik, eta atari nagusian jarriko duten plakan irakurriko dute: Idiakez Ederra. XVII. mendeko jauregia.

Baina guretzako Nagusia 80 izango da, puska batean. Izen horrekin ezagutu dugu udaletxeko dokumentu, plegu, akta eta abarretan, gutxienez 2009. urtetik, aldamioa jarri ziotenetik. Pentsatzen hasia nintzen neu ere nagusitu eta 80 urtera iritsita aldamioa hortxe ikusten segitu behar nuela. Baina, sarritan, bizitzak ordainsari onak izaten ditu zain egoten dakienarentzat. Eta geurea ere bidean da. Azkoitiarrok edukiko dugu zer ospatua aldamioa kentzen duten egunean. Metalezko azken pieza desmuntatzen dutenean hantxe egon beharko lukete agintariak, biribilguneak inauguratzen dituzten okasioetan bezalaxe, dotore jantzita eta tokiko prentsari deialdia eginda, jendaurrean berri ona zabaltzeko.

Baina, erakundeek ekitaldiez gain, herriak ere antolatu beharko luke festa handiren bat. Gorrixen Egune, Beltzan Egune, Pelotai Egune eta horrelakoak egiten diren bezalaxe, Aldamio Eguna (#aldamioeguna) aldarrikatu beharko genuke. Nire proposamena: aldamioa kendu eta hurrengo zapatuan egitea. Aldamio zatiak saldu daitezke dirua biltzeko. Berlingo harresia "erori" zeneko hartan bezalaxe, eta herriko artisaren batek aldamioa metal zatitxoak belarritako edo pultsera bihurtu ditzake. Festan bildutako diruarekin liburu mardul bat ere idatz daiteke, auzi honetan gertatu diren gorabehera guztiekin eta bidean min hartu duten pertsonen istorio pertsonalekin. Komedia eta dramaren arteko zerbait geratuko litzateke, esperpento moduko bat. Auzi honetan gertatu diren hainbat kontu bezalaxe.

Hurrengo egunean bai, orduan ikusiko dugu dena argi eta lasai. Idiakez berriro ederra izango da eta hor bizitzera joango direnen hipotekak ere, halakoxeak. ■■■

**ERAKUNDEEN
EKITALDIEZ GAIN,
HERRIAK ERE
ANTOLATU BEHARKO
LUKE FESTA HANDI BAT**

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukf.eus o 943-81 38 41

Euskalgintzaren gizarte kapitala



IXABEL JAUREGI

Udazkena hasi berri dugun honetan, guztia martxan da berriz ere. Baita herriko kirol, aisialdi, gazte, ekologia eta beste hainbat esparrutako taldeak ere. Azkoitian gizarte kapital oparoa dugula baieztatu dezaket, eta horretaz harro nago. Aintzat hartzen al dugu? Gizarte kapitalaren definizioa: gizabanakoek zein taldeek beren arteko harreman bereziaren eta beren arteko lankidetzaren ondorioz sor dezaketen onura kolektiboa eta ekonomikoa. Definizioari euskalgintzarena gehituko diot. Azkoitiko erakunde publikoen eta herri ekimenaren arteko osagarritasuna euskalgintzan. Euskara hartuta ardatz. Sortzaileak eta dinamizatzaileak, berriz, ezinbestekoak, nahiz eta maiz ez jabetu herrian ditugunez. Ezkutuko lan isila.

Talde eratuak, langilez eta boluntarioz osatuak, gehienetan euskara nagusi, eta ezin denean, elebitan. Horien artean, AEK euskaltegia, Korrika eta haren mintzalagun proiektua. Erniarraitz bertsozale elkarteak, gaztetxo eta helduentzat saioak aurrera eramaten dituen eskoletan ahozketasuna eta bertsolaritza sustatzeko programaren bidez. Udalarekin lankidetzan, herriko ikasle denek jasotzen dute, hain beharrezko dugun ahozko komunikazioa lantzeko, sormena bultzatzeko, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztopoak gainditzeko. Eta batez ere,

komunikatzaile onak sortzeko. Euskara Mahaia, Euskara Eguna, noka ikastaroa eta Hike eizan! bertso paper lehiaketaren arduradun eta antolatzaile, udal eta herriko eragile taldeen bidez. Aizkibel udal liburutegiaren zerbitzua ere kontuan hartzeko da, mailegu zerbitzuarekin eta funts oparoarekin. Ekintzen artean: liburu truke azoka eta ipuin kontalariak. Bi hilabetearen behin Iñigo Aranbarriren gidaritzapean elkartzen den Irakurleen Txokoa aipatzea nahiko nuke, adosten den liburu bati buruzko iritzia trukatzeko, parte hartzea bultzatzen baita. Keinu bat egin nahi nioke Bizenta Mogel elkarteari –33 urteko ibilbidea itxi du– herrian hitzaldiak eta txangoak antolatzen ibiltzeagatik.

Amaitezko, zer egingo genuke Maxixatzen euskara elkarteak sortzen duen euskalgintzaren gizarte kapitalik gabe? 2020an, Idoia Alberdik *Maxixatzen* aldizkari berrian *Soineko berria* iritzi artikulua idatzi zuen. Aurreko hilabeteetan eskualdeko hainbat komunikabiderekin lankidetzan jardun ondoren, Urolako Komunikazio Taldea sortu zutela aipatzen zuen. Hiru urteren ondoren, GUKA sortu dute, UKT multimedia. Bertan daude: Uztartaria, Baleike, Maxixatzen, Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza, Guka, Erlo telebista. Bada hor gure hizkuntza normalizatzeko sarea, lankidetzak ekarriko du onura. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Erronkak
Izena: Jokin Sudupe
Doinua: *Oh, baserritxo!*

Irailerako erronkaren bat,
jartzeko dugu ahalmena,
oporren martxa albora utziz,
ez ta izaten errexena,
tentazioak ugari dira,
aste osoan barrena,
egunegun kostantzia da,
gehien balio duena.

Etxeko lanen ardura hartu,
ordubete bat ikasi,
kirola egin, garbiago jan,
ta erretzeari utzi,
jarria dugun helburu hortan,
lortu leikela sinetsi,
nahiz eta irrist egin batzutan,
horregatikan ez etsi.



HERRIKO MERKATARI ETA OSTALARIEN GIDA

JARRI ZURE IRAGARKIA

GUKA  **ZERBITZUAK**

943-85 36 17 • gukazerbitzuak@ukt.eus



Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Baratzaleak iruzia

**MILAR
LARRAMENDI**
Etxetresna elektrikoak

Zulo Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897

Erakundearen gureko iruzia Cooking & Chef iruzia

CO
**Cooking
& Chef**
KOKATZEKO ETXETRESNA



TK

Urriak 20 arte

DENDA ITXITA
ERREFORMA ETA MARKA IRUDI
ALDAKETAGATIK

Hala ere, telelanean jarraituko dugunez, betiko
moduan jarri zaitezke gurekin harremanetan,
bai emailaz eta baita telefonoz ere.



943 85 20 52



tk@fkgraf.com

BARKATU ERAGOZPENAK